

Aurkibidea

IRITZI ETA GOGOETA

Carmen VALOIS · <i>Ikuslearen begiradatik</i>	4
Miren JUARISTI · <i>Kukuaren izaera panoptikoa</i>	5
Jon URRUTXURTU · <i>Maiatzean kuku garagarrilean mutu</i>	6
Itziar GOMEZ · <i>Euskal Literatura globalizazio garaian</i>	7

NARRAZIOAK

Borja ETXABE · <i>Holzhauser Strasse</i>	8
Ziortza VEGA · <i>Txanogorritxo</i>	9
Juan Miguel MUNARRIZ · <i>Bazkaria prest dago!</i>	10
Iñaki ODRIOZOLA · <i>Flasha</i>	12
Juan Mari APAOLAZA · <i>Horixe Politte</i>	14
Itziar GOMEZ · <i>Txokolate tartaren tentazioa</i>	15
Ion ORZAIZ · <i>Clint</i>	16
Ana GELBENTZU · <i>Gutuna</i>	17
Iñaki ODRIOZOLA · <i>Jainkoaren bila</i>	19

SOLAS ETA JOLAS

Carmen VALOIS · <i>Alkoholarekin egindako perfumea</i>	21
Itziar GOMEZ · <i>Idazle eskola</i>	21
Andoni ETXEBERRIA · <i>Horoskopoa</i>	22

POESIA

Ziortza VEGA · <i>Geratu nintzen</i>	23
Doltza BARANDIARAN · <i>Amona</i>	24
Karmele IGARTUA · <i>Kenia</i>	33
Ainara MAIA · <i>Eguneroko egun batean</i>	34
Ainara MAIA · <i>Hil-Argia eni irribarrez</i>	34
Miren JUARISTI · <i>Ama lagundu</i>	35

ELKARRIZKETA

Gorka AZKARATE · <i>Harkaitz Cano. Solasean Harkaitzekin</i>	29
--	----

IRAKURKETAK

K. OLATE · <i>Bala artean jolasean</i>	37
Doltza BARANDIARAN · <i>Gerrateko Ibilerak I</i>	39
K. OLATE · <i>Neronek tirako nizkin</i>	41
Jon URRUTXURTU · <i>Eguzki Beltzaren sekretua</i>	42
Ana GELBENTZU · <i>Nire denboraldiko ibilerak</i>	43
Gorka AZKARATE · <i>Ihes-betea</i>	45
Miren JUARISTI · <i>Panoptikoa</i>	47
Karmele IGARTUA · <i>Mariasun Landa</i>	48
Mirentxu OTEIZA · <i>Galtzerdi suizida</i>	49
Karmele IGARTUA · <i>Krokodiloa ohe azpian</i>	50
Doltza BARANDIARAN · <i>Elefante txori bihotza</i>	52
Itziar GOMEZ · <i>Txan Fantasma</i>	53
Ainara MAIA · <i>Ia hamar urteko arnasaldi sakona</i>	54
Ainara MAIA · <i>Laurak kafe bat hartzera gonbidatu ninduenekoa</i>	55

ZUZENDARIARI GUTUNAK

Andoni ETXEBERRIA · <i>Zuzendariari Gutunak</i>	57
---	----

IDAZLE ESKOLA

Zuzendaria:
Tere Irastortza

Idazkuntza Kontseilua:
1. eta 2. mailako ikasleak

Azaleko irudia:
Carmen Valois: Testigantza Mutua

Maketazioa:
Rotugrafik

Inprimaketa:
GERTU Inprimategia
Zubillaga ind. 9 - 20560 Oñati

L.G.: SS-803/04

L. LUMA BERRIEN ELEAK SALGAI PUNTU HAUTAN:

BILBO: Elkar-Iparagirre megadenda

IRUÑEA: Xalbador, Lanbroa taberna

DONOSTIA: Bilintx

IRUN: Bilintx


BERGARA: Etxeapare

ZARAUTZ: Garoa liburudenda, Trinitate kalean. Indize liburudenda

ARETXABALETA: Leniz liburudenda eta kioskoa



Gipuzkoako Foru Aldundia



IKUSLEAREN BEGIRADATIK

Bost Esaldi bost idazle definitzeko

Ikasturte honetan Bergarako Idazle Eskolatik bost idazle gonbidatuak pasa dira. Bere esperientziak gurekin konpartitzera etorri dira, eta gu (nola bestela!!!) hitzen maisu-maistren aurrean zerbait ikasiko genuelakoan, adi-adi egon gara larunbatero, ia sorgindurik.

Bost idazle horien artean bi emakume eta hiru gizon izan dira, guztiek kode komun bat konpartitzen: idaztearen grina, seguruenik hori gauzatzeko era eta helburu ezberdinak izan arren.

Hausnarketarako une miresgarriak bizi ditugu, bai horixe!!!

Eta bien bitartean, gure pentsamenduak garatzen, aberasten, zabaltzen joan dira, lau hormen arteko espazio hertsia gaingituz.

Goiz horietako kontakizun-asmakizun ameslariak, oren biribilduetako hamaika desio-pasio berpizten ibili dira; gotorleku itxiko iratxo alferrak esnatuz, Elizaren erlojuak markatutako taupaden pean.

Eta aldi berean, horietan sentitutako etengabeko bihozkada lotsatiak ikuslearen barruko begiradari honakoak zuzendu dizkio: Idazle al gara? Akaso, abenturazale ausartegiak? Sarerik gabeko trapezista eroak? Idazle izatea, zer da? Zerk eramaten gaitu hitzen bitartez adieraztera bizitzen edo sentitzen duguna? Beharra baldin bada, zeinena da, ordea? Idazlearena, bizirik dagoela adierazteko, ala irakurlearena, bizitzeko arrazoiak bilatzeko?

Idazlea, guztiok bezala, jai, hazi eta hil egiten bada, zerk bilakatzen du desberdina besteekiko, norberetikiko? Idazlea ez da mundutik at dagoen pertsonaia, egunerokotasuna behar baitu horren inguruan aritze-

ko, are gehiago, hortik abiatzea beharrezkoa du berriz hasierara bueltatzeko etengabeko biran, amaigabeko zirkuluan, fikzioaren eta errealitatearen arteko muga ikusezinak zeharkatzen aldioro.

Aldi berean, ikuslearen begirada Idazle Eskolatik pasa diren idazleek utzitako lezioaz jabetu da, alegia: norberak duen esperientziatik abiatzen dela munduaz duen irudia plazaratzeko eta desberdinak izan arren, guztiak baliagarriak direla, are gehiago, beharrezkoak, osagarriak, anitzak garelako, errealitate poliedrikoaren adierazleak, alajaina!!!

Eta haien hitzek utzitako arrastoak ikuslearengan honakoak sortu dituzte:

LAURA MINTEGI

Errealitatea ezagutzeko ikusminetik abiatzen den lan-gile nekaezina. Bizitzan dagoen gauza ñimiñorik izan daiteke bere gogoaren pizgarria. Jakitearen beharra asetu egin behar duen idazlea. Sentipenaz biziz, egunerokotasunaz edaten, aurrera doan idazle konprometitua. Hitzen arkitekto sendoa.

EDORTA JIMENEZ

Begiak zabal-zabalik dituen istorioen bilatzaile nekaezina. Adinak makurtu ez duen inkonformista kronikoa. Lan egituraz kezkatua dagoen harrietako flautista. Idaztea lanbide bihurtu duen hitzen anarkista. Imperialismo kulturalaren aurkako borrokalari sutsua.

M^a ASUN LANDA

Ipuinetako abadesa. Esentziak biltzen dituen kaleko perfumista. Hitz-jolasak asmatzen dituen amandrea.

KUKUAREN IZAERA PANOPTIKOA

Bere dohainak zerurantz proiektatzen dituen hizkietako sukaldaria. Etorri berezia, ukitu magikoaren jabe lasaia.

UNAI ELORRIAGA


Garunaren garrantziaz arduratutako hitzen artisaua. In-guruko gertakizunen aztertzaile zorrotza. Lan egituraren sistematizazioa erabiltzen duen zurarik gabeko arotza. Errealitateaz elikatzen den hirietako hegalaria. Zuzentzaile metodikoa.

HARKAITZ CANO

Amaieraren geometriaz kezkatu dagoen erruletako magoa. Bukaeraren perfekzioa bilatzen duen irudietako poeta. Testuaren biribiltasuna beharrezkoa duen hitzen zinemagilea. Bukaera posible bakarraren kezka agortezina duen hizkien matematikoa. Objektu sinbolikoen fetixista.

Eta hemen bukatzen da ikuslearen begiradak egindako bidaia, baina, hala bazan edo ez bazan, zuei dagokizue esatea, zuek ere, irakurleok, errealitate poliedrikoaren adierazleak baitzarete.

Carmen Valois



Zelatari bikaina izan behar du kukuak. Urte guztia ezkutuan igaro ondoren, maiatzean agertzen zaigu bere arrautza ipintzeko kabi bila. Basoko kabi guztiak dira aukeran, kukuarentzat erruntoki. Kartzelako zaintzaileak bezala, kukuak beste txorien nondik norakoak jarraitzen ditu hauek bere presentziaz jabetu gabe. Horixe gertatzen da kartzela panoptikoan: izaki bakarra, multzo bati begira. Bentham anaiek garatu zuten eraikin panoptikoa. Erdian, zaintze lanetarako dorre bat du Panoptikoak. Dorre horretatik, gatibu guztiak ikus daitezke, ez ordea gatibuek beraiei behatuz dagoena. Panoptikoaren forma arkitektonikoak eragin zuzena dauka honen funtzionamenduan. Jeremy Bentham jaunak, presoak bete beharrekoko arau batzuk zehaztu zituen Panoptikoaren funtzioa ziurtatzeko. Bertan dauden gizabanoak zuzendu eta berriz gizarteratzeko sistema ezarri zuen. Kukuak ere, seguru aski, guraso egokiak topatu nahiko ditu bere kumea hasi dezaten. Bere erresponsabilitatetik urrunduz, kumea ezezagun batzuen eskuetan uzten du, hauek hezi dezaten. Gizarteak ere kartzela panoptiko horretan giltzaperatzen ditu lagun guzti hauek, ezezagun batzuk berrezi ditzaten, kasu honetan. Kukua hezitzaile hauek kontrolatzen dituen elementua da. Dena ikusten duen begia eta bere sistema propioa sortu duen Bentham txoria.

Miren Juaristi

MAIATZEAN KUKU GARAGARRILEAN MUTU

Beste espezie batzuen kontura hazten ditu kumeak kukuak

Ku-ku, ku-ku, ku-ku... nork ez du ezagutzen kantu ozen hori? Dudarik gabe, hegaztien munduan doinurik ezagunena da, eta ospe hori hizkuntza ezberdinetan txori hau izendatzerakoan islatzen da: kuku, euskaraz; *cuco* gazteleraz; *coucou*, frantsesez; *cuckoo* ingelesez...

Egutegi ofizialak udaberriaren hasiera martxoaren 21ean finkatzen badu ere, baserriarrentzat kukuaren (*Cuculus canorus*) kantua iragartzen du urtaro horren etorrera. Eta sinesmen herrikoien arabera, “Andra Mari martikotik (martxoak 25) zortzigarren egunean kukua ez badator bere *ondra enterrua* (hileta) egin behar da”.

Izan ere asko dira Euskal Herri osoan hegazti honen inguruan sorturiko kontaketak, esaerak eta sinesmenak. Tradizioaren arabera, egoera ekonomikoan ere eragina du txori bitxi honek, kukuak jotzen lehen aldiz entzuterakoan poltsikoan txanponak daramatzanari urte horretan ez omen baitzaio dirurik faltako; txanpon gabe badago, ordea, hurrengo udaberrira arte, behintzat, ez da aberastuko.

Biziaren iraupenarekin ere nolabaiteko zerikusia omen du kukuak; horregatik atso-agurek kukuak noiz joko arduraz izaten dira, lehen kantua entzunez gero urte horretan heriotzaren bisita ez gertatzeko berme osoak eskuratuko baitituzte. Adinean aurrera doazenean, “ez dakit aurten kukurik entzungo dudan” esaten dute, kuku-hotsa entzun ondoren, urte horretarako bizia ziurtatuztat edukiko dutela adierazi nahirik.

Habia-bizkarroitz

Bere kantua ezaguna bada ere, ezin da gauza bera esan kukuaren itxura eta bizimoduari buruz, nekez ikus

baitaiteke. Aitor Bengoak Elhuyar aldizkarian argitaratutako *Kukuaren Habi-Bizkarroitz: Norgehiagoka Etengabe* artikuluan azaltzen duenez, *kukua hegazti bizkarroia da, hau da, bere kumeak beste espezie baten kontura hazten ditu, txantxangorria, txepetxa, amilotxa eta abarren habietan arrautzek jarriz. Hirurogei ostalaritik gora ezagutzen zaizkio kukuari Europan.*

Habia-jabeen ausentzia aprobetxatuz, errutuko du kuku emeak ostalariaren habian. Arrautzak mimetikoak izango dira, hots, neurri, kolore eta forman beste espeziearen oso antzerakoak. Bi egunetik behin erruten dute, gehienetan arrautza bana habiako eta guztira hamabost jartzera irits daiteke. Gainera, ostalariarenean arrautza utzi aurretik, habiako bat lapurtuko du, horrela kopuruan aldaketarik egon ez dadin.

Kukukumea habiakideak baino lehenago jaioko da, eta ostalariaren arrautzak habiatik jaurti egingo ditu, era horretan lehiakideak kanporatu egiten ditu eta janari guztia beretzat izango da. Egun gutxitan, gurasordeak tamainuan gainditu egingo ditu. Dena den, benetako gurasoak kumeez ez dira guztiz arduragabetuko, eta hauek intsektuak eta beldarrak bereziki prozesionaria ehizatzen kanpora ateratzen hasi arte habia inguruan ibiliko dira.

Udaberriko kantua

Ku-ku, ku-ku, ku-ku... kantu ospetsua arrarena da, emearena apalagoa, baxuagoa eta ezozenagoa baita. Baina uda sartzen den heinean, kuku-hotsa isilduz joango da, San Pedro inguruan desagertuz. Eta gertaera hau esaera herrikoiek islatzen dute: “*Kukuak egiten dau maiatzean “ku-ku”, garagarrilean (uztailean) gertatzen da mutu”* edo “*Andra Mari martikoz ku-ku, San Pedroz mutu”*”.

Arratia (Bizkaia) aldean esaten denez, “San Pedro jaietan, Diman bazkaldu eta Frantziara joaten da kuku”, hurrengo urtera arte bere arrastorik izango ez delarik. Baina ez da Frantziakoa hegazti migratzaile honen hartzen duen norabidea, Afrikakoa baino, negua lurralde horietako epeltasunean igaroko baitu. Lehe-

nengo gurasoak abiatuko dira eta hilabete eta erdi inguru beranduago kumeak euren kontura eta inolako gidaririk gabe izango dira Afrikako gune tropikaletan bukatuko den bidaia hasiko dutenak. Ku-ku, ku-ku, ku-ku...

Jon Urutxurtu

EUSKAL LITERATURA GLOBALIZAZIO GARAIAN

Euskal Literatura globalizazio garaian mahai ingurua Irungo Amaia Kultur aretoan. Mahai-an bost hizlari; Harkaitz Cano, Xabier Etxaniz, Iñaki Aldekoa, Felipe Juaristi eta Jorge Jimenez.

Eseri naiz hirugarren ilaran zer entzungo jakin min biziz. Ingurura begiratu eta lau lagun; emakumezkoak laurak. Kuku, kuku, kukuaren kantaren oihartzuna aretoan. Zerbaiten isla izango da hau agian, baina aurkezpena gainditu eta hitzek berehala bete dituzte eserleku hutsak.

Hizlariak hitza: Globalizazioa ez dela gaur egungo ezaugarri nagusizat hartu behar. Bere garaian erromatarrak ere horretantxe aritu zirela. Orduan ere kukua lanean besteren habian arrautzak jartzen. Globalizazioaren helburua hots, prozesuen eraginkortasuna areagotzea da; botere ekonomikoa geroz eta esku gutxiagotan biltzea. Bertako arrautzak jaurti eta kukua renak habia guztietan. Gaur egungo literatura sistemak kanonak sortu omen ditu. Sorkuntza sailkatu egiten da berehala eta ez kalitateari bakarrik erreparatuz. Berdin dio kantu zoragarriko urretxindorraren arrautzak badira ere. Kukuak haiek apurtu eta bereak jarri. Eta txoriak, gainera, itsututa, kuku umea elikatuko du. Geroz eta garrantzi handiagoa du irakurlearekin harreman zuzenak. Elitea, lehen, kalitate handiko liburuek osatzen zuten. Egun, ordea, miresmena galdu dugu elitearen aurrean. Askatasuna irabazi dugu ustez; Baina nahi duguna irakurtzen al dugu benetan? Jabetzen al gara zein

den kukuak utzitako arrautza? Kukuak agintzen al dio irakurleari? Gehien saltzen dena al da onena? Literaturaren historia osatzea geroz eta gehiago kostatuko dela diote. Zein izango ote dira egungo klasikoak? Hitzak bazuen garai batean zentzu espirituala. Gaur egun, sekularizazioa dela, ustezko askatasuna dela, edukia arindu egin da neurri batean. Entretanimendua hobesten da. Diruaren autoritatearen garaian bizi gara. Kukuari bide egiten uzten diogu. Herri guztiek bertakotzat jotzen dute kukua oraintxe. Merkatuak agintzen du; hau da, Kapitalismoak azken batean. Eta Kapitalismoari ez zaio komeni jendeak pentsatzea. Galtzen ari da Literaturari lehen ematen zitzaion balorea. Kuku ari da irabazten. Eta gu gainera, “Kuku kuku” pozik kantatzen.

Euskal Literaturak interes gutxi pizten duela mahai inguruaren ondorioetako bat. Nahiz badagoen baikorragorik ere. Irakurle euskaldunak eta leialak egon badaudela, baina Kultura krisian dagoela mundu osoan. Baita Euskal Herrian ere. Beraz, euskal gizartearen porrota ere badela pentsatu beharrean gaude.

Lehen pasio handiagoa zegoen idazten eta irakurtzen zutenen artean. Zer gertatzen da orain...? Aktibo izatetik pasibo izatera al goaz? Noiz arte utzi behar diogu kukuari euskal literaturaren habiatik arrautzak jaurtitzen?

Itziar Gomez

HOLZHAUSER STRASSE

Holzhauser Strasse. Einsteigen bitte. Ateak irekitzen dira. Absteigen bitte. Ateak ixten dira. Pi, pi, pi, pi! Entzuten da bozgorailutik. Geltokiaren aurrean Justiz Vollzug Anstalt Tegel presondegia dago eta Ikerrek atzean utzi du.

Metroko leihoen kristalak ispiluak dira. Iker bere bu-ruari so dago. 9:30etan Alt-Tegelen Azrarekin elkar- tzekoa da eta berandu dabil. Gaur, lau hilabete haue- tan ez bezala, ez dio Veronikari 10:00etan deituko. Me- troak bat-batean abiadura gutxitzen du. Ikerrek segun- do batez oreka galdu eta pauso bat ematen du aurre- rantz.

Borsigwerke. Einsteigen bitte. Ateak irekitzen dira. Absteigen bitte. Ateak ixten dira. Pi, pi, pi, pi! Metro- ak berriro abiadura hartzen du. Borgiswerketik Alt-Te- gelerako bidea lurrazaletik egiten du metroak. Zemen- tuzko etxe karratu aliniatu alienatuen artean argi dei- garriz dekoratutako kontzesionario bat ikusten da leiho- tik, putetxe bat bailitzan. Laino artean, Alemaniako aluminiozko ilargi lausoa, txikia. Veronikaz oroitzen da ikusten duen bakoitzean. Hala egin zioten promes- elkarri Buen Pastorreko egurrezko bankuan, Donos- tian elkarrekin eman zuten azkeneko arratsaldean, eta halaxe egiten du Ikerrek.

Alt-Tegel. Endstation von die Linie U6. Absteigen bitte. Ateak ireki eta Iker bagoitik ateratzen da. Azra zain zegoen, Iker ikusi zuenean irribarre egin zuen. Praka bakero estu batzuk zituen. Ile beltza motots ba- tean jaso eta hortz zuriak. Fremdsprache Schulen eza- gutu zuten elkar. Hiru muxu masailetan.

- Zer moduz?
- Ondo, ondo. Gosetuta. Eta zu?
- Ni ere. Urruti al dago grekoa?
- Ez, hementxe, metro batzuetara.
- Azkenean egin al duzu Kärstinek bidalitakoa?

- Bigarren ariketa bakarrik.

Afaldu ostean, alboko Die Blaue Mond tabernara jo- an ziren. Becks batzuk edan zituzten zigarroa eskuan zutela.

- Ordu bata eta erdiak.- Azrak.

- Ez duzu astirik azkenengo U6a hartzeko.

- Non hartzen dira Nachtbusak?

- Hemendik bostehun metrotara, baina Postdamer Platzera doaz denak.

- Ufa! Kreuzbergera joateko Postdamer Plätzen bes- te bat hartu beharko nuke.

Ikerrek zigarroari zupada sakona ematen dio. Isilta- suna...

- Nire etxean logela bat libre dago. Nahi baduzu? Eta bihar akademiara elkarrekin joango gara.

- Ados.-Erantzun zuen bat-batean Azrak bere hortz zuriak erakutsiz.

Ikerrek zigarro-mutxikina bota eta beste West Light bat atera du paketetik. Aspaldian sentitzen ez zuen zi- rrara sentitzen zuen Ikerrek.

Die Blaue Mondetik atera, trenbidea gurutzatu, eta Gorkistrassean barrena joan ziren biak. Azraren takoi hotsak kalean durundi egiten zuen, ez zegoen inor. Biak atzerritar Berlinen, galduta Babelen, bakarrik, biak ez- berdin, biak berdin, biak konplize.

Eskua Azraren gerrira eraman zuen Ikerrek. Alema- niako aluminiozko ilargi luminiszentea, zeruan, zela- tan. Gerri biguna eta formaduna, eta Azrak gorputza Ikerrengana aurreratzen, elkarren beroa sentitzen.

Bolle Strassera iritsi ziren. Bigarrengo ataria zen, Ikerrena, hirugarren solairua. Ez zegoen igogailurik. Etxe zaharra zen. Atera iristerakoan etxeko txakurra zaunkaka hasi zen.

Pisu txikia zen. Ikerren gelan ohe bat eta idazmahai bat zegoen. Idazmahaiaren gainean musika aparatu bat zegoen. Azpian, tiradera. Eta tiraderan edaria; edaten hasiko ziren Bacardi botila. Ikerrek tabakoa atera zuen.

- Nahi? -Eskeni zion paketea Azrari.
- Ez.

Lord Cossityren ragga CD bat ipini zuen. Hirugarrengo kanta iristerako, *Assasins de la police*, musuka ari ziren, biluzten. Ohe gainean bota ziren. Azra Ikerren gainean jarri zen. Biluzik. Titiak balantzaka. Le-

poa atezu. Ilea solte, eta buruaren atzean, leihoa. Leihoan, ilargia. Ostia bat iluntasunaren erdian. Zuria, isurtzeke zegoen hazia bezain zuria. Sumindutako begi borobila. Ilargira begira korritu egin zen.

Holzhauser Strasse. Einsteigen bitte. Ateak irekitzen dira. Absteigen bitte. Ateak ixten dira. Pi, pi, pi, pi! Entzuten da bozgorailutik. Geltokiaren aurrean Justiz Vollzug Anstalt Tegel presondegia dago eta Ikerrek atzean utzi du.

Azulurdin

TXANOGORRITXO

Bilbon, 2006ko martxoaren 31n

Txanogorritxo maitea:

Ane naiz, zazpi urte daukat. Poz-pozik joaten naiz egunero ikastolara; gauza asko ikasi ditut dagoeneko. Atzo irakasleak zure berri eman zigun.

Ipuina kontatu behar zigula, Txanogorritxo izeneko neskatila batena. Niri izen inozoa iruditu zitzaidan, izan ere, gure eskolan ez dago inor horrelako izenarekin. Nire lagunen izenak Olatz, Irati, Ander dira.

Zuk beti janzten duzu txano gorridun kapa? Udan ere bai?

Istoriaa gustatu zitzaidan, baina ez nuen dena sinetsi, otsoak zelan jango du umea?

Irakasleari esan, eta gutun bat idazteko esan zidan, ikusiko nuela. Hemen naukazu bada.

Joseba oso irakasle ona dugu, baina batzuetan edozer esan diezagukeela uste du, eta nik ez dut jada txupeterekin lo egiten.

Zelan dago zuen amama? Guk ere badugu mendian bizi den amama; lehengo egunean amak sendagaiak eramatera bidali ninduen: Tanakene, Remontal, Prometax eta beste izen arraro batzuk.

Pote gorria, pilula berdeak, ... Amama, zuena eztiarekin osatzen da, eta gurea, koloretako botoiekin. Berdin dio, zuk saskia eta nik farmaziako poltsa.

Otsoa, beno, nik esan dizut ez dudala kontu hori sinesten; eramango dizkiozu botikak gure amamari? Izan ere, ni ikastolatik irtetea ingelesa ikastera joaten naiz, musika eskolara ondoren. Ez dizu inporta, ezta?

Gauzatxo bat jakin nahi nuke: ipuinetako pertsonaia izateko ezer berezirik egin behar da? Eskolara behintzat, ez zara joaten; otsoak jaten bazaitu ere, ez zara hiltzen.

Gonbitea onartuko duzun zalantzarik ez dut; beti zuen amamarenera joaten ibili ordez, oraingoan gure amamarenerako bidean zerbait berria bizitzeko aukera izango baituzu.

Amamak nire galde egiten badizu, esaiozu, ez dudala otsoak jan nazan nahi; horregatik bidali zaitudala zu.

Zuk inork baino hobeto dakizu, otsoaren kontuak balio duela, gezur polita asmatzeko.

Bi musu gorri.

Ane.

Ziortza Vega

● BAZKARIA PREST DAGO! ●

Haizezko-garbigailua sakatu dut. Euria gogor ari du eta, berehala, kalea hustu egin da. Ospitalera iritsi naiz eta, besteetan ez bezala, sarreraren bertze aldean aparkatzeko lekua aurkitu dut. Autoan geratu naiz euri jasa noiz amaituko. Alferrik dela erabaki dut eta aitamen batean atariraino egin dut korrika.

Amaia bere gelara ekarri dutenerako ni han nengoen. Agurtu ditut, bai emaztea, bai zaindaria.

- Egunon Amaia- erran diot musu bat eman diodan bitartean egin dituzu gaurko ariketak?

- Gaur mutur dago ihardetsi dit Pellok, bere zaindaria, bi besoetan hartuta eta ohean sartu duen bitartean.

- Beno, Amaia, bihar arte. Konpainia onean uzten zaitut.

- Esker mila, Pello, bihar arte- erantzun diot nik.

- Aio, Mikel, ea bihar beste aldarterik dugun!

Zaindaria gelatik joan bezain pronto, Amaiak, zuzen-zuzenean, erran dit

- Eraman nazazu etxera!

Deigarria izan da bere eskaria, ez hainbeste bere esan-guragatik nola bere irmotasunagatik. Ez dago inolako zalantzarik: erabakia aldeztatik hartua du.

- Oraintxe bertan joanen naiz medikuarengana eta alta boluntarioa eskatuko dugu - erran diot bi aldiz pentsatu gabe.

Dtr. Etxaberen kontsultara joan naiz. Ordu erdi bat izan naiz esperoan, baina azkenean, erizainak deitu dit

kontsultan sartzeko. Adeitasunez, Etxabe jaunak agurtu nau eta espedienteari begirada bat eman ondoren...

- Amaia ongi dago..., erran nahi dut...

Barkatu, Etxabe jauna, kontsultaren helburua beste bat da...Amaia etxeratzea da; beraz, alta boluntarioa hartzea etorri naiz.

- Um!...Ez dakit erabaki ona izanen den...Onartu behar dut Amaia egoera egonkorrean dagoela, horrengatik, hasieran, erran dizut ongi dagoela. Baina, kezkatzen nauena zera da: urte bat igaro da auto-istripua gertatu zenetik eta errehabilitazioan ez du aurrerapausorik ematen...; lehenengo urtea tetraplegiako kasu guztietan oso gogorra izaten da, depresio-postraumak jota, psikikoki larri ibiltzen baitira. Amaia, aldiz, setati samar ikusten dut...

- Bai, hala da. Aspaldi konturatu naiz horretaz. Izan ere, bera izan da etxera eramateko eskatu didana. Amaia nolakoa den ezagututa, badakit erabakia tinkoa dela.

- Eta hori kontuan izanen dugu!... Baina, susmoa dut hori onartuz gero, atzerakada handi bat izanen dugula.

- Amaia erabat aldatuta dagoela erran daiteke, lehen oso alaia zen; lagunarteko alaiena, bera zen taldea bul-tzatzen zuena. Baina, nik uste, logika bera erabiltzen ari dela oraindik ere. Istripu aurretik, segundoz segundo bizi nahi zuen dena, detaile xumeenak ere, disfrutatzen. Gaur, ordea, ez dago segundorik bere bizitzan, bizia gelditu egin zaio...

Horixe da! Amaiak ez du ahaleginik egiten errehabilitazioan, ez du ez ilusiorik ez kemenik.

- Bertze aldetik, ez dut ukatuko giro-aldaketa ona izaten ahal denik eta etxeko giroa hobereena denik, bai-

na, etxeak ez daude ongi prestatuak honelako gaixo-entzatzat eta, nahiz eta ospitaletik kanpoko laguntza asko izan, ez dut uste ideia ona izan denik.

- Eskertzen ditut zure aholkuak, benetan eskertzen ditut. Baina erabakia hartuta dago... eta...

- Ongi da! Kontsulta egin ondoren paperak beteko ditut. Zuek, bitartean, harreran zuenak bete beharko dituzue

- Esker mila. Etxabe jauna.

Amaiarengana joan naiz eta azken berriak eman dizkiot. Ez dit ezer erran, baina bere aurpegiaren nabaritu dut eskerra.

Arratsaldeko zazpietarako etxean gaude. Dena erraza izan da. Bi zaindarien ohatilan eraman dute gure logelarraino. Ohean sartuta, begiak itxi eta arnasa sakon hartu du, gozatzan ari dela ematen du.

- Amaia, zer nahi duzu afaltzeko?

- Ezerez. Hona etorri baino lehen merienda eman didate eta ez naiz gose. Lasaigarria bakarrik hartuko dut.

- Beno, nahi duzun bezala, baina zer edo zer nahi duzunean eskatu.

- Eskerrik asko. A, Mikel, etxe honetan otorduak sukaldetan egiten dira! Ez ahaztu! Ohean, botikak baino ez ditut hartuko!

Azken ohar hauek harritu naute. Hala ere, ez diet garrantzirik eman nahi. Egoera berri honi aurre egin behar diodala pentsatu dut.

Gaueko bederatzietan, ospitalean bezala, lasaigarria eman diot eta segituan pixoihala aldatu diot. Gabonak eman eta argia itzali ondoren, bakarrik utzi dut.

Gauean, nire ohean bueltaka ibili naiz “A, Mikel, etxe honetan otorduak sukaldetan egiten dira! Ez ahaztu!” behin eta berriz entzuten. Eta esaldi enigmatiko horri beste hauek gehitu dizkiot: “Uste dudana bada, zer egin behar dut?”... “Berak ez du bizitzeko gogorik!”... “Nor naiz ni bera aldatzeko!”... itzuli eskuin, itzuli ezker. Azkenean, oroitu naiz nola, Amaiak, herriko ferietan txurroak ekartzen zituenean, “*gosaria prest dago, azkar ez bazatoz txurrorik gabe geratuko zara*” sukaldetik oihuka deitzen zidan eta esaldi horrekin loak hartu nau.

Goizeko zazpi eta erdietan esnatu naiz. Amaiarengana joan naiz eta iratzarrita zegoela ikusita, musu bat eman diot. Ia konturatu gabe galdetu diot: *zer nahi duzu gosaltzeko?*

- Jaus ez! Lasaigarria baino ez dut hartuko!

Gustura edan du basokada bat ur, osorik. Gero, garbiketari ekin diot. Mehar-meharra dago. Dodotis kenduta, belakiarekin igurtzi dut bere gorputz osoa suabe-suabe. Begiak itxi ditu. Ez du begiratu nahi. Beste gauza bat izan da aurpegia garbitu diodanean edo ilea orraztu diodanean, orduan bai, aurpegiaren ederki

antzematen diot bere esker ona.

Hamarretan, erosketak egin eta gero paseietara joan naiz. Itzultzean bazterretan zeuden lorerik politenak hartu eta etxera eraman ditut. Amaiari erakutsi ondoren, komodan dagoen lorontzian jarri ditut.

Ordu bietarako bazkaria prestatuta daukat. Sukaldeko mahaian bi platerak bete ondoren atetik deitu diot: -“Amaia! Bazkaria prest dago!...Bazkaltzera!”



“Amaia! Bazkaria prest dago!...Bazkaltzera!”

Juan Miguel Munarriz

FLASHA

Flash argiak itsutu nau, bat-batean. Segundo bakoitzeko zazpi sastada gutxienez. Ia eskaileratik jausi naiz, azken maila ez baitut ikusterik izan.

Eskuinaldean, Iñaki, *diskjokey*-a, berera, ile artean burua balantzaka; noizbehinka, erritmoa eraman nahian dabilela ematen du. Ez da erraza: Led Zeppelin. Diska osoa, jarraian *-Black Dog, Rock and Roll, Baby, I'm gonna live you-*.

Bafleak gogor ari dira, lehertu beharrean, lau ertzetatik. Erdian, dozena bat dantzari. Adatsak, tximak eta bizarrak; emakume gutxi. Ezkerrean, taberna. Argi gutxi- dagoen leku bakarra. Goizeko ordubiak dira.

Mielangel eta Arrate ez dakit bikotea diren beti elkarrekin dauden arren. Homosexualak direla diote, baina niretzako, ez

dutela sexurik praktikatzen, edozein izanda ere. Gimnasia dela pentsatuko dute, eta eurek gorputza gehiegi ez mugitzearen aldekoak dira.

Marihuana pixkat lortu dute, lagunuen batek emandakoa, sosik ez baitaukate, ezta bien artean kafesnea hartzeko ere. Horregatik, ardo bi eskatu dituzte. Bi gorri. Lehenago bi beltz, eta hasieran, beste tabernan, bi zuri. Ahalik eta azkarren -eta merkeen-, mozkortu na-


hi dute, gaur ere...

Mielangelek orain hiru hilabete utzi zion lana egiteari. Ez zegoen gustura, tornu errebolberrean zortzi ordutan tente egotea luze egiten zitzaion, batez ere bigarren porrotxoaz geroztik. Enkargatuak zerbait esan zion, itxuraz, hirugarren aldiz, ordubetean, komunera zihoala ikusi zuenean. Orduan, Mielangelek, mailua hartu eta mehatxu egin zion; gero, mailu berarekin,

makina-buruko engranajea apurtu zuten; taladrina bidoia hankaz gora jarri, inguru guttian barreiatuz, eta azkenik, ostikoka ekin zion arropa gordetzeko armarutxoari. Lasaitu zenean, beste porrotxoa erre eta gero, ugazabarena joan zen. Gehiago ez zetorrela adierazi zion, eta kito: ez zen gehiago joan. Orduandik,

Arraterekin hasi zen ibiltzen-ibiltzen baino, jarrita egoten-, eta neskak lanik egiten ez duenez, batera daude hogeita lau orduz.

Josu sartu da atzetik bultzaka, bat-batean. Ez, ez dator bultzaka, ez, ezin eraman duen mozkorraz baizik. Begiratu eta barre egin dit. Ganoragabeko irri lerdea. Gaur ere zaldi gainean dabil, ziurrenik. Joan zen hilean zaldia erosi zuen. Orain, egunero jaten eman behar



dio, eta gero eta gehiago jaten du, madarikatuak. Lehenik dirua, gero osasuna, gero askatasuna, dena jaten du. Baina dena erosi behar gainean ibili ahal izateko. Dena saldu behar jarraitu ahal izateko: etxeoak, lagunak, ezagunak, ezezagunak.

Atzo harrapatu zuten erdiko kaleko taberna batean lapurretan. Ezagutzen zuen jabeak, eta ez dio ezer egin, ezta salatu ere, muturreko bat emateaz gain. Ez zaio inporta. Ahal duenean, berriz ere, egingo dio, erraz baitauka, kale ondoko leihatilatik sartzea.

Argi gorriak hasi dira biraka. Urdinak, berdeak, txandaka. Led Zeppelin bateria, oraindik ere, bafleak zartatu nahian.

Pello ikusten dut, zutabe atzean, neska bati musuka, elkarri muskilak jaten. Gaur bi aste hasi ziren, elkarrekin. Erabat atxurtuta ezagutu zuten elkar, eta, bi aste geroago horrela jarraitzen dute. Batak bestea eusten, batak bestea miazkatzen, aldi berean ari dira.

Pello bajaran dago. Orain bi aste atzamar potoloa hautsi zuen. Nahita. Ajustadorea da, eta lanean ona dela diote, baina, noizbehinka, ezin du lana jasan. Langileen eguneko zubia zetorrela eta, hiru egun lehenago jai hartzea erabaki zuen. Mailua hartu eta bere buruari eman zion, atzamar potoloan. Mina hartu zuen. Hala ere, ez behar beste. Alboko lagunari eskatu zion jo zezan. Honek, hasieran, beldurtu egin zenez, ezetz esan zion, baina Pello hainbeste tematu zen, ezen izugarrikoa eman zion: lau aste bai, beharko ditu osatzeko. Zutabearen atzean, eta anesthesiatuak, eta maitearekin jolasean, ez dauka minik oraintxe bertan.

Ez dira konturatzen, ez musika aldaketetaz, ez eta lau pikoletok sartu direnik, trikornio eta guzti, dantza-leku erdiraino.

Isiltasuna bat-batean. Iluntasuna. Argi guztiak piztu dira. Argitasun osoa. Denak itsuturik gelditu gara. Gu-

re begiak badoaz, poliki-poliki moldatzen. Karnetak eskatzen ari dira. Banan-banan atera gaituzte dantza-tokitik, ertzetako txokoetatik, Pello eta neska bakarrik libratu dira. Inor ez da konturatu zutabe atzean zeudela. Beraiek ere ez.

Eskailerak zarataka eta oihuka igo ditugu. Pikoletok ikusten ez gintuztenean, irainka eta gora-ETA-ka. Gora heltzean, ordea, berdez jantzitako beste dozena erdi zeuden. Mikel ez da konturatu eta kontsigna zartarren bat botatzen harrapatu dute. Kulatarekin eman dio hortzetan, eskuinekoak. Ezkerrekoak, ostikada izterrean. Odolez utzi dute bi segundotan. Heldu diot bizkarretik, eta buruak makurturik, txamarra bakeroa gainean jarriz, kanpora irten gara. Euria da, barra-barra. Zaparrada galanta. Mikelen odol jariora bezain galant. Bi hortz zintzilika ditu. Lurrera erori gara biok. Prakak, jertsea, alkandora blai eginda dauzkagu; gal-tzontziloak ere bai. Altxatu gara, nola hala, eta anbulatoriora abiatu.

Gero jakin ahal izan dugu, tabernaren jabearekin ari zirela paisanoz jantzitakoak. Norbaitek esan omen zien ospatu egiten zuela guardia zibilen bat hiltzen zutenean. Izorratzeko aitzakia. Orain urte batzuk pentsatzen nuen telefono deiarena eurek asmatutako aitzakia izango zela, baina, gaur egun, herrian dagoen jende bat ezagutu ostean, zalantzak dauzkat. Txanpan botila irekierazi zioten. Edanarazi. Botaka egin zuen. Gehiago edanarazi.

Botila batzuk apurtu zizkieten atzeko paretara platerak boteaz; edalontziak ere lurrera bota. Joan ziren arte inor ez zen sartzen ausartu.

Ugazaba ez zuten anbulatoriora eraman. Han geratu zen, ondoezik. Ordu-erdi eta gero, erratza hartu eta apurtutakoak jasotzen hasi zen. Ondoren, flash argiak itzaltzera joan zen beheko txokora: sastaka-sastaka, oraindik piztuta zeuden guztion begietan.

Iñaki Odriozola

● HORIXE POLITTE ! ●

- Zer. Madril aldean eguna luzatzen hasi al da ala?
- Bai, bai, ni zazpietan akademiatik irtetzen naizenean, kotxeak argiak piztu gabe ibiltzen dira.
- Hemen behintzat alde ederra egin du. Orain sikiera arratsaldea zer edo zer egiteko ere bada, orain arteko hori zen motza, bost eta erditan ilunduta, ezer egiteko ez dela.
- Beno, ni ez naiz asko enteratzen, e! Goizean metroan sartzen naizenean, ilun egoten da, eta iluntzean ere metrotik irteterako ilunduta egoten da eta.
- Zera esaten aritu ginen, datorren jaian osaba Fermin etortzekoa dela eta denok izango ote garen bada mezatarako eta gero bazkaltzeko. Ez hura bera beste komenientzira asko ibiltzen delako, baina.
- Nik zapatuan lagunekin afaria daukat. Joan den hilean deitu zidaten, ea noiz etorri behar dudan galdezka, eta etortzen nintzenerako afaria plantatuko zutela esan zidaten.
- Jairako gaude bada gu pentsatuta, eta jendeari abisuak ere egin dizkiogu.
- Bada, nik esan dizut, eta nik ez dakit jaian nola egongo naizen. Hemen, gauzak zuek erabaki eta gero egin behar izaten ditut nik.
- Inork ez dizu esan zapatuko afariaren konturik, baina iganderako denak egotea da gauza. Lehenago egingo genukeen, zure zain egon gara, eta orain, horixe politte.
- Bada, zuk asmatu duzu osaba Fermin etorri eta meza ematearen kontua, eta nik ikusiko dut zer egingo dudan. Ematen du beti ni etorri zain egoten zaretela horrelakoak asmatzeko.
- Besteak ere norbera bere lanean ibiltzen gara hemen, eta zuk besteek bezala zergatik ez duzu bada ibili behar?



- Zuk beti denok egon beharreko gauzak asmatzen dituzu, eta gero besteek egon behar izaten dute hemen. Bada oraingoan nik ikusiko dut zer egin.
- Baina zuk ez daukazu ordea ezer ere, besteek bezala mezatarako buelta egindako-

an bazkaldu, eta gero joango zara nahi baduzu.

- Bai, eta nik zergatik egon behar dut hemen, osabak meza eman behar duelako? Eta gainera, osabak abisatzen al du noiz etorri behar duen? Hura, nahi duenean etorri, eta hemen denak egon behar dugu haren zain, ezta?

- Hari ez etortzeko esaten bazaio, ez da hura etorriko.

- Zuk behintzat, lehenago etortzeko esaten diezu denei, eta gero hemen denak aldatu behar izaten dugu.

- Hemengo buelta laster egingo dugu, bai. Meza kontua motzagoa egiteko esango diogu aurten, eta berandutu baino lehen bazkaltzen hasiko gara.

- Bada nik lehenengo lo egin behar dut; zuk esan diezu etortzeko eta zuk ikusi jendea etortzen denean zer egin. Nahi baduzu, osaba Fermini esan bazkaria presatzeko.

- Horixe politte!!

Juan Mari Apaolaza

TXOKOLATE TARTAREN TENTAZIOA

Atea itxi dut. Sukaldean bakarrik! Ordubete, inguruan eulirik gabe. Ez dago gaizki. Lehenengo gauza; irratia piztu. Ea non... Euskadi Irratia? Elkarrizketak interesgarria dirudi. Hementxe bada!

Orain, osagaiak su gainera:

- Gurina. 150 gr.
- "Postretarako" txokolate tableta.
- 2 arrautza
- Gatz apur bat
- Legamia (zorro erdia)
- Irina. 200 gr.

Nahi izanez gero:

- Intxaurrek edo urrak. 150 gr.

Atsegina da sukaldean aritzea. Bakarrik batez ere, bake bakean. Zenbaitetan laguntza onar daiteke. Gaur ez, ordea. Neure tarta da. Neure "yoga aktiboa".

- Jarri txokolatea eta gurina mikrouhinerako egokia den ontzi batean eta barrura urtu arte! (Bizpahiru minutu beharko ditu)

Hau usaina! Txokolateak badu zerbait, bai. Atzo, alabak eta nik "Chocolat" pelikula ikusi genuen laugarren aldiz edo. Zeinen pelikula ederra; gidoia bikaina, pertsonaiak egokiak, aktoreak apartak... Ederki gozatu genuen. Eta eskerrak bonboiak gertu genituen, zeren bestela... Txokolaterik eskura eduki ezean ez eta bururatu ere pelikula tentagarri hau ikustea!

- Nahastu ontzi batean bi arrautzek eta azukrea. Gehitu hauei, urtu ditugun gurina eta txokolatea. Ondo

nahastu. Gogoz, baina gozo. Pentsa maite duzun horren gorputzean zabaltzeko igurtzia dela.

- Bota gatz apurra eta legamia. Nahastu.
- Ondoren, gehitu irina pixkanaka. Pazientziaz. Oreka gorputza hartuko du, astunago egingo da. Maite duzuna, hasierako pasioa desagertu ondoren, baldar bihurtzen den moduan.
- Azkenik, nahi izanez gero, gehitu oreari intxaurrek edo urrak pusketetan eta dena ondo nahastu.
- Labeko erretilua edo ontzi zabal bat gurinez eta irinez igurtzi eta zabaldu ore bertan.
- Aurrez epeldutako labean sartu, 35-40 minutu inguru. (Erdi pareko tenperaturan, potentzia erdian).
- Epel dagoela ebaki behar da tarta. (Gero gogortu egiten baita).

Errezeta maitasunez egin baduzu, ederra egongo da. Eta etxe osoan geratuko den usaina, gonbidatuentzat ongi etorri tentagarria izango da. ON EGIN!



Itziar Gomez

CLINT

Telebista piztean Clint agertu da. Kale-bazter lohi eta kirastu batean dago. Oraindik sosen-gatzen zaizkion hiru hortzak erakusten dizkio kamerari, irribarre zabal eta tolesgabean. Irribarre bihurria eta makurra. Groteskoa. Tekla beltz gehiegi dituen piano zaharra dirudien irribarre. Clint ez da bere benetako izena, Piotr baizik, baina Clint izen dotorea da. Apaizak auzoko osasun etxean larunbatero ematen dituen filmetako heroiak bezala: Joe, Bill, Bud, John... Izen dotoreak guztiak. *Cowboy* izenak. Alta, bere gogokoena Clint da, zalantzarik gabe. Duela bi aste *The Good, The Bad, The Ugly* filma eman zuten. “Hori bai pelikula bikaina, hori”. Bertan, heroiak erriflearekin tiro egiten zuen eta urkamendian, lepotik zintzilik, hiltzorian zegoen gizagaixoaren soka moztu. Oilo narrua jartzen zaio Clinti eszena hori ikusten duen bakoitzean. Berak ere pelikuletako Clint horren antza badu, edo horrela uste du behintzat. Luzea da, eta argal-argala, eta aurrekoan zapi gorria aurkitu zuen ibai ertzean. Zapia lepoan, benetako gentlemana dirudi. Auzoko lagunek Clint deitzen diote, eta baita errespetuz tratatu ere. Berea bezalako izen batek errespetua sorrarazten du jendearengan. Gerrikoan sartuta daraman pistolak ere laguntzen du.

Odesatik bost kilometrora dagoen fabrika lan egiten du Clintek. Zaindaria da. Gaueko txanda. Lanpostua lortu zuenean, nagusiak ez zion uniformerik edo linternarik eman. Pistola bai, ordea.

Gauetz furgoneta gurpilak edo plastikozko edukinontziak lapurtzera doazenei egiten die tiro. Baina ez da hiltzailea, ez horixe. Arma zerurantz destatu eta abi-

su-tiroa egiten du beti, lapurrei zangoetara disparatu baino lehen. “*Inguruko herrietako nerabeak dira gehienetan*”, esan du mikrofonora hurbilduz, “*baina asmo txarrez badatoz, badakite nor izanen duten hemen zain*”.



Auzoko gaztetxoak liluratuta daude Clinten pistola-rekin. Honek tiro praktikak egiten uzten die, ondo portatzen badira betiere. Tipo jatorra izateaz gain, haurrekin ezin hobe konpontzen da. Oso tiratzaile ona da, gainera. Odesako tiratzaile onena, askoren ustez. Gerran aritu omen zen soldadu, aspaldi. “Horiek bai garai onak, horiek”, esan du, kazetariak horretaz galdengin dionean. Soldata majoa, soldadu profesionalarena, eta ez orain fabrika irabazten duena. Tiro batzuk bota, zure aberria suntsitu nahi duen jendilajea akabatu eta egunero ogia zure familiarentzat.

Emaztea duela bi uztaro zendu zitzaion Clinti. *Berunaren bidezko pozoitzea*, esan zioten medikuek. Bai-

na ezin kexa daiteke, batez ere auzoei so eginez gero. Berak, gutxienez, badu lanik, eta semea elikatzeko adina diru. Ezin kexa daiteke, ez. Alta, gerra garaian, soldadu baten jornalarekin, auzoko guztien inbidia sorraziko luke: Arropa berria, hiru otordu egunean, berunik gabeko ura... Agian telebista ere erosiko luke. Orduan bai, orduan akabo tristura, adio janariarengatik borrokan egiteari, agur kola esnifatzeari oren amaigabeak azkarrago igaro daitezten. “Zergatik ez dugu gerra-

rik?”, galdetu du Clintek, apur bat atsekabetuta. “Armak behintzat, badaude. Kamioi batek ekartzen ditu egunero fabrikara”. Gero, irriz, marfil horizko hortzak erakutsi eta eskua bekokira eraman du, kamerari keinu militarra eginez. Segituan iragarkiak hasi dira.

Ion Orzaiz

GUTUNA

Zaldibian, 1901eko martxoaren 21ean.

*A mi querida hermana Sor Catalina del Amor
Misericordioso.*

Kattalin mattia, zer moduz zaude? Hemen, ongi esan beharko, bizitza aurrera doa, eta, Jainkoari esker, osasunez ongi. Arima kontuan, berriz, gaixotzeko zorian, izan ere, hain handiak izan dira ezin uxaturik izan ditudan kezka.

Zu, ordea, lasai bistaratzen zaitut komentuan, erre-zuan eta lanean gelditu gabe. Jainkoari ohore egin eta berari zerbitzatu. Jainkoa senarra izango bazenu bezala, bere esanetara erabat jarrita. Hori izan zen zure erabakia. Hori gure etxetik alde egiteko aitzakia. Aske izan nahi zenuen, ez zenuen onartu aitzakia senartzat aukeratutako gizona, eta horregatik aukeratu zenuen zuk gizonen artean agindu gehiena zuena, Jainkoa, zerruko erregea. Horrela joan zinen eta horrela geratu nintzen ni ahizparik gabe, barrengo sekretuak kontatzeko lagunik gabe.

Halabeharrez, eskatu nien nik ere gurasoei baserri-

tik aldentzeko baimena. Aitak senartzat aukeratutako Inazio, onartzearen truke, eskatu nion neskame lana betetzeko permisua. Horregatik nabil hemen Zaldibia-ko ostatu txiki honetan lan eta lan, gelditu gabe ni ere, otorduak egiten trebatzen eta, niretzat antolatuta dagoen bizitza berria erosoago bizitzeko txanponak bil-tzen.

Etxekeon ongizateak kezkatzen nau, baina ziur nago gure Jainkoaren bedeinkapena dutela eta hark ongi zainduko dituela. Gure izeba Anbroxi oraindik gaztea da eta hori lasaitasun ederra da guretzat, eta horrela izan dadila urte askotarako.

Karta honetan Kattalin, hilabete hauetan gertatutakoa kontatu nahi dizut. Buruhauste eta kezka handiak izan ditut, baina, beti gertatzen den bezala, iluntasunaren ostean argitasunak hartzen du lekua eta ni ere hasia naiz, beraz, argitasuna ikusten, zoriontasuna arnasten eta bizitza berrirako prestatzen.

Eta dagoeneko galdetzen hasia izango zara, jakin nahian, zer izan den kezka eta zoriona sortu didan arrazoia. Duela zortzi bat hilabete hasi zen nire bizitzan gertatu zaidan egoerarik ederrena. Ostatuan nengoen,

igande eguerdi batean, beti bezala herriko baserritarrei meza nagusiaren ondorengo hamaiketako zerbitzuetan, gure artean hiltzat jotzen genuen mutil gaztearen arima agertu zitzaigunean.

Ezezaguna zen gazteak gorputza ahitua eta mindua zeukan, ez ordea, ahotsa. Hizketan hasi eta ilusioa galdua zeukan aitari esan zion gudatik itzulitako semea zela. Aita zur eta lur gelditu zen, barren barrengo odol izoztuak, harrizko estatu baten modura. Eta, ondoren, sinesgarria ez zena sinetsi zuen aitak, semeak proba erakutsi zioenean: eskuin eskuko behatz motza.

Eta izoztuta gelditu zitzaizkigun odolak hantxe bertan geunden gainontzeko guztiei ere. Orduan agindu zidan etxeako andreak salda beroa eskaintzeko aitari eta berpiztutako semeari. Eta orduan, salda eman nion mutilari. Eta inoiz jaso ez dudan irribarrearekin eskertu zidan eta orduan piztu zen nire barruan jela eta izotz handiena urtuko zuen txinpart txikia.

Nola esplikatu, Kattalin, nik sentitu nuena, mutil nekatu harren esker oneko begiak ikusi nituenean. Eztia bere begietan, sufrimendua aurpegian, arrastoak gorputzean. Bizitza latzaren aztarnak zituen gorputza zaindu eta sendatzeko desira izan nuen, eta horretarako eskaini nintzen. Eta baita berak eskertu eta onartu ere. Eta gorputz hura zaintzen, joan zen barrengo txinparta handitzen sua bihurtu arte. Handitzen joan zen bezala bion arteko desira eta maitasuna. Kontaezina da sentitzen dudana poza bera ikusten dudana bakoitzean, eta gure begiradak elkartzan direnean. Kontatzen dizkit guda horretan bizitakoa eta esaten dizkit hitz ederak eta agintzen dit noizbait itsasoa ikustera eramango nauela ere, eta... nik baietz esaten diot. Eta horrela, izango da, nahiz eta oraingoan gure etxeko odolak izoztu.

Kattalin, Martin maite dut eta, ez, ezagutzen ez dudana Inazio. Hauxe da dena. Hauxe etxekoei esan beharrekoa, hauxe gure aitak eta Inazio berak jakin be-

har dutena. Hauxe. Besterik ez.

*Zaldibian gelditzea da nire nahia; hemen, Martinek bizitza berria hasiz. Horregatik, natorkizu laguntza-
ren eske. Aurreratu berri hau etxekoei. Udaberri az-
tarnak antzematen hasiak gara eta epel eta bero ga-
raitarantz hurbilduko gara aurki. Izotz handienak ere
urtzen dira, pixkanaka bada ere. Horixe da dudana itxa-
ropena.*

*Kontatutakoa ulertuko duzulakoan nago, ahizpa
mattia. Eskerrik asko Kattalin.*

Muxu handi bat eta besarkada bero bat zuretzat.

Dios te guarde por muchos años.

Tu hermana que mucho te quiere y nunca te olvida

Emili Aritzeta

Ana Gelbentzu



JAINKOAREN BILA

Herenegun goizetik maitea zen hila. Kalera irten nintzen jainkoaren bila. Etsiturik nenbilen. Maitea ohean, zuri-zuri, gogorturik; eta, jainkoa, auskalo. Telefonoen listinean begiratzen aritu nintzen, ordu pare bat bai, eta ezer ere ez.

Politikoak-eta bezala ezkutuko telefonoa izango zuela pentsatu nuen, baina ezinezkoa zen. Nor eta jainkoa. Izan ere hari tokatzen zitzaion jende arruntaren zerbitzura egotea, eta, hortaz, telefonoa edonork eskuartzeko eran izan behar zuen.

Eskailerak korrika jaitsi nituen, denborarik ez galtzeren, pentsatuz, bada, jende diruduna bezala, kafetegia-riaren batean izango zela, gin-tonik bat hartzen.

Ezkaratzetik atera orduko konturatu nintzen zaila izango nuela helburua lortzea. Inoiz jainkoarekin egon gabe nengoen, ez nekien nolakoa zen: ez nuen inoiz haren argazkirik ikusi. Egia esan, ez nekien non aurkitu ere.

Entzunda neukan toki guztietan zegoela, eta dena ikusten zuela; bera, ordea, ez zen ikuserraza, ez. Zer egin eta, Artzain Onaren katedralera joatea otu zitzaidan, han ostatu hartzen zuela ere entzunda baineukan. Kide batek, behin, kontatu zidan, igandeetan, bisitatzerara joaten omen zitzaizkiola hainbat atso, eta bizpahiru agure. Denbora sobera izaten dute horiek.

-Gai honetan, gurasoekin sexuarenarekin bezala gertatu zitzaidan. Ez zuten hari buruz inoiz hitz egiten, eta jakin, nekien guztia lagunengandik, eta telebistatik ate-

rata nekien-. Horrexegatik nengoen galduta, benetako lagunik ere inoiz ez bainuen eduki. Telebista, ere zuri-beltzekoa besterik ez adin nagusitasunera heldu arte.

Hogeita hamar pauso neramatzan, gutxienez, Urbietakalean, lurreko harlauzen ertzik zapaldu gabe. Maniatxoak. Kalea luzea zen, eta banekien ez nuela lortuko plazaraino heltzea, halakoren batean, tarteko leerroren baten gaineratik igaro gabe. Baina saiatzen nintzen, norbaitek, pasaran, arraro samar begiratzen ninduen arren.

Erakusleihu zabal batek atentzioa eman zidan. Bortizki. Hemezortzi telebista, denak irudi berdina igorritik, denak ahots berdinez, ozen, belarriak zulatzen ari zitzaizkidan. Han zegoen jainkoa. Anaia Handia bezain handi. Txundigarria zen. Ezin nuen jasan.

Niri begira zegoen, mehatxatzaile, pantaila guztietatik. Ez nion ulertzen, baina begietatik sartzen zitzaidan, sarkor, eta zentzuen eremu guztia betetzen zidan.

Han zegoen Jainkoa, haretzek behar zuen, hain izugarri, aurrez aurre, eta, ni, haserre nengoen berarekin, kasurik ez baitzidan egin, maitearen heriotza zela eta.

Bat-batean sartu nintzen. Senak agintzen zidan. Ezin nuen beste ezer egin. Eskuineko apala gainean zegoen teleskopio handi bat hartu eta, jabearen harridura aurpegiaren aurrean, telebisten kontra bota nuen, izugarritzko apurketa sorraraziz.

Hura zen zarata. Jainkoak jakingo zuen, hemendik aurrera nirekin txantxa gutxi behar zuela. Hura zen

txinparta, su eta ke nahastea. Apalategi osoa goitik behera etorri zen, segundo batzuen buruan. Telebistak, lurrera. Pantailek eztanda egiten zuten, beirak, milaka zatitan trixkatzen zirela.

Atzetik heldu zidan jabeak.

-Zer egin didazu? -Zer egin dizut? -Zer egingo dizut? Denetarik esaten zidan, aztoraturik. Ez zitzaion ezer ulertzen, benetan, irain batzuk ezik. Ostikoka hasi zitzaidan, jainkoaren bizkartzaina edo izango balitz bezala.

Mina ematen zidan, nahita; halere, ulertzen nuen, hark ez baitzeukan jainkoa eta nire arteko aferan zerikusirik. KK "kalte kolateral" bat besterik ez zen, gure arteko liskarrean. Horregatik ez nuen neure burua babestu. Masailean, bularrean, potroetan eman zidan, baina niri axolarik ez. Bera defendatzen bakarrik ari zen; nik, ostera, helburua beterik naukan. Jainkoari eraso nion. Libre sentitzen nintzen, eta berdin zitzaidan edozer gertatuta ere.

Polizia autoen frenatze zaratsua sumatu nuenerako, dendariak, kolpeka, burezurra kraskatu zidan, eta konturatu orduko, batidora batez, garuna irabiaki bihurtzen ari zitzaidan.

Hil aurretik, ordea, lurrean nengoela, oraindik martxan zegoen telebistan ikusi ahal izan nuen jainkoa, berriro, lehentsu bezalaxe, hitz eta mehatxu eginaz. Begira-begira neukan. Niretzako, irribarrez ari zela nire egoera ikusirik.

Orduan konturatu nintzen entzunda nuela jainkoa betierekoa zela, hilezkorra. Beti ere, nolana ere, iraun egiten zuen horietakoa. Gripearen antzekoa zela.

Ni ez, ordea, gizakiak, jainkoari esker, hilkorrak gara.

Iñaki Odriozola



Alkoholarekin egindako perfumea

Osagaiak:

96 gradutako alkohola.
Arrosa petaloak edo gustuko duzun landarea/
lorea.
Kristalezko ontzia, tapakia hermetikoa duena.

Prestaketarako:

Loreak txikitu eta kristalezko ontzian jarri
 $\frac{3}{4}$ bete arte.
Alkohola bota loreak guztiz tapatu arte.
Ontzia itxi. Toki ilunean eta epelean gorde
21 egunetan.
Egunero ontzia astindu.
21 egun pasatzen direnean irazi likidoa,
loreak kendu eta berriak jarri.
Beste 14 egun horretan utzi, egunero eragiten.
Likidoa berriz irazi eta erabiltzeko prest
dago.
Komeni da tapatuta gordetzea eta argitasune-
tik babestea.

Carmen Valois



Idazle Eskola

I kasteko daukagula jakiteak.
D igu laguntzen aurrera egiten,
A sebate nahi genuke burua
Z eu geure ametsen helburua,
L iburu gorrotatua, maitatua,
E zpainek beti nahi zure musua.
E ta honetara bildu gara Bergaran,
S ua, barruko suari bide egiteko
K olpe kolpeka idazteko
O latuen dantzan sortzeko
L ore sorta zuri oparitzeko
A diskide, irakurle eta idazle.

Itziar Gomez

Horoskopoa

Mariren orrazia

Martxoaren 21etik apirilaren 20ra

Buruan daukazun bidaia horrek ez dizkizu arazoak konponduko: ezin duzu arazoetatik ihes egin. Badakizu gezurtia herrena baino lehenago harrapatzen dela; lapurra zeu izan zarela onartu eta kitto. Ikas itzazu Amaia Zubiriaren letrak: auto-estima igoko du.

Eibarreko liburua

Apirilaren 21etik maiatzaren 21era

Orain arte izan zarena izateari utziko diozu, orrialdea pasa eta bildutako jakinduriarekin zure barneko ahotsari jarraituko diozu. Astro guztiak zurekin daude eta arrakasta eta zoriona baino ez dizute ekarriko. Gozatu duzun diruaz, ezusteko batek mordoxka bat ekarriko baitizu. Segi erretzen: ez dizu kalterik egingo.

Geminis

Maiatzaren 22tik ekainaren 21era

Jan eta lo: potolo. Eta badirudi zu ez zarela konturatzen. Esaera zaharrak ez dira besterik gabe egiten, eta bikote bilaketa aspaldiko zerbait izateagatik ezin zara orain bale itxura hartzen joan: gogoratu igeriketan ez zarela gustura egoten, eta oso eskasa zarela.

Adolfo

Ekainaren 22tik uztailaren 22ra

Oso ona zara idazten. Baina idazteko aukera orain duzula, zeren zain zaude idazten has-teko? Horixe da zure borroka. Gainera, zeurekoia zara zure idazketen zain dauden irakurleak kontuan ez hartzean. Lanez aldatzeko garai ona da, baina kontuz zure jarrera despotikoekin.

Zakila

Uztailaren 23tik abuztuaren 23ra

Alferrikakoa da ikusten dituzun txakur kaka guztiak zapaltzen joatea. Venus eta Marte ez daude zurekin: zoritxarreko bolada pasatzea itxarotea besterik ez duzu. Bien bitartean saiatu etxetik ondo babestu gabe ez ateratzen eta ahalik eta jende gutxienarekin ibiltzen.

Maria Magdalena

Abuztuaren 24tik irailaren 23ra

Gauzak bizitzan ez dira besterik gabe pasatzen. Zure maitea larunbatero ikusten duzu eta bera zure arreta faltagatik gurutziltzaturik bizidada. Zu, aldiz, ez zara konturatzen. Hobe duzu adi egoten hastea bestela zure lagun onena dela uste duzun horrengatik utziko zaitu. Kulerorik gabe ibiltzeari ere utzi: hotzeriak baino ez dizkizu ekarriko.

Patata

Irailaren 24tik urriaren 23ra

Zu bai zu zorientzua: ederra zara... jatorra... maitemindurik zaude... baina hobe duzu zure umekeriekin kontuz ibiltzea eta daukazuna baloratzea, letxugak bestela alde egingo baitizu. Erakutsi zure inguruekiko enpatatia handiagoa.

Txintxeta

Urriaren 24tik azaroaren 22ra

Hobe zure patua ez aipatzea. Beste barik *“A vivir que son dos días”*.

Kaka

Azaroaren 23tik abenduaren 21era

Depresioak jota: jende guztia zutaz nazkatuturik dagoela uste duzulako. Eta zu baino,

arazoa haiek badira? Froga ezazu beste giro batean murgiltzen. Ahaztu jende pijoia, ez da zuretzat, eta erabili baino ez zaituzte egiten. Zuk badaukazu zeure lekua mundu honetan: segi zeure senari eta aurki ezazu.

Vietnam

Abenduaren 22tik urtarrilaren 22ra

Gaur izango duzun elkarriketa horrek zabalduko haria jarraitu behar duzu. Dirua ez da ortuan hazten eta “Gaztelura” iritsi nahi baduzu, zeure interesen arabera ondo aukeratu zure lagunak. Zer arraio, besteek ere erabili izan zaituzte behin baino gehiagotan.

Antxoa

Urtarrilaren 23tik otsailaren 18ra

Taldearen laguntza nabari duzun bolada honetan elkarrekin burutako ekintzak duen garrantziaz jabetzen zara. Ez ahaztu hori inoiz, ondo baitakizu bolada honetan bakarrik bazoaz beti egongo dela prest zu jateko marrazoren bat. Ez utzi inoiz bidaiatzeari, barre-nak garbitzen dizkizun gauzarik handiena baita.

Ikea

Otsailaren 19tik martxoaren 20ra

Zeure buruak horrenbeste merkatzeak azkenean kalte egingo dizu. Duintasuna eta leialtasuna existitzen diren bi bertute dira, inora joan aurretik beha lehenengo bertakoen ohi-turak zureak inposatu beharrean. Horrela lortuko duzu zure zirkulua zabaltzea, eta ez bestela.

Andoni Etxeberria

Geratu nintzen

Ez dakit zergatik geratu nintzen,
begiak bustirik nituen,
aurpegia zurbil.

Behin eta berriz esan zenidan: zer?

Nire ezpaineak oihu biribila egin arren,
zure besoek ez ninduten hartu.

Nire bihotzaren taupadek
ispilu hotza hautsi zuten.

Haizeak ekaitza zekarren,
ez ninduzun ohartarazi.

Zure begi beltzek eguzkia erakuts dezakete,
baina ez niri, antza.

Ondo dakit, orain zergatik geratu nintzen.

Ziortza Vega

Amona

Arratsalde euritsu batean joan zinen

Neguan

Isil-isilik
Zalapartarik egin gabe
inortxo ere gogaitu gabe

Zulo galanta utzi duzu
hutsik geratu gara

Umezurtz

Harrez geroztik,

zure eitea nonahi aurki daiteke
zelaietako arrosa ederrek
zure usaina dakarkidate,
eguzki-izpiek
ene aurpegia laztantzen duten zure eskuak dirudite,
txorien txorrotxioak
zure kantu goxoak entzun arazten dizkidate,
etxe alboko harizpeak
zure magalean eserita nagoela oroitarazten dit,
iturriko ur freskoak ezpainak bustitzen dizkidanean
zure musuak gogoratzen ditut.

Nire heldulekua izan zara
ez nauzu itsaso erdian bakarrik utzi;
enbata zenean erauntsia jasateko gai zinen
barealdiaz gozaten ederki zenekien

Gugatik edozer emateko prest,
Bizia,
Guztia

Joan zara

urrundu ez
nire baitan jarraituko duzu

adiorik gabe
gerorarte soil bat


Amona

Doltza Barandiaran



Mozartek ferekatu zidan
barrua,
eta pentsatu ninan hire izenean;
zer ikusirik daukaten
musikak
eta azken aldian hainbeste erakartzen hauen
geometriak,
mugaezina denean
bata,
eta muga, bera,
bestea;
eta pentsatu dinat,
batak eta besteak
ertzik gabeko irudietan
egiten dinatela
bat,
barraskiloaren maskorrean,
edo zurrunbiloetan,
itsasoak, laztanduz,
malgotu eta hondartzan utzitako
harri zurian,
eta eguzkiaren baitako beroan
eta Keniako ilargi bete batean.

Karmele Igartua



Eguneroko egunen batean

Egunen batean negar egiteko zorian bazaude...
...dei iezadazu;
ez dizut hitzematzen irri eginaraziko dizudanik,
baina zurekin egin dezaket negar.


Egunen batean laster egiteko gogoia baduzu...
...zalantzarik ez izan niri deitzeko;
ez dizut hitzematzen gelditzeko eskatuko dizudanik,
baina zurekin egin dezaket laster.

Egunen batean inor entzuteko gogorik ez baduzu,
dei iezadazu eta...
...ixilik egonen naizela hitzematzen dizut.

Baina...
...egunen batean zuk niri deitu eta
ez baduzu erantzunik jasotzen...
...etorri bizkor ni ikustera...
...zure beharra izanen dut.

Hil-Argia eni iribarrez

Urrundik datorren ahotsa
ia ez da belarrietara iristen,
Atabal baten asotsa bezala,
tap-tap-tap
hegan datorren ahotsa
gutako bakoitzarengana heldu da.
Hil-harri batetik aterata dirudi eta,
udaz eta udaberriaz mintzo:
Hau poza!
Eta irribarre bat pizten da ezpainenetan.
Entzuten dut,
Giza-ahots bat besterik ez baita,
bizitzaren porrotak nahiz borrokak
aizkora baten antzera zeharkatuz,
eta ekaitz-tximistetan barneratuz
eta kanporatuz.
Eta zu? Zuek zer? Ez al duzue entzuten?
Lastima horren gutxi irautea!
Baina ez al duzu entzuten?
Aro ederra hurbiltzen ari da!



Ainara Maia



Harkaitz Cano,

<< Irrazionaltasuna errealitatean sartzeko ate bat da >>

Argazkia: Gorka Azkarate

• Solasean Harkaitzekin •

Harkaitz Cano. Euskal literaturaren gailurrera hurbiltzen goiztiarra. Gaztea izanagatik, sormen literarioaren alorrean ibilbide luzea egin du dagoeneko, eta ibilbide are luzeagoa du oraindik aurretik. Askok, euskal literaturaren erreferentetzat dauka egun idazle lasartearra; berak, ordea, umiltasun harrigarriaz, eguneroko lanean aurkitzen du laudorio eta miresmen hitzetatik babesteko gordelekuetan ezkutukoena. Udaberri estreinatu berriko arratsalde euritsu batean, aterkipean hurbildu nintzen, bustitzea saihestu nahian, Donostiako alde zaharreko kafetegi batean artistarekin adostu hitzordura. Alferriko izan nuen, baina, aterkiaren babes, elkarri bostekoa eman bezain laster elkarrizketatuak eragindako hitz, keinu, ideia, forma geometriko edo kolore zaparradarengandik babesteko. Aterkirik gabe nahiago, gainera....

Gorka Azkarate

>... eta egun hartan idazle izango nintzela erabaki nuen.

Galdera hori erantzuteko orduan literatura egin eta gertakariak apaintzeko joera du zenbaitek. Hipotesi ezberdinak dauzkat nik. Nerabezaroan, Lasarte utzi eta Donostiara joan ginen bizitzera; lagun berriak, institutu berria... Halako batean, neuk idatzitako lan bat besteen aurrean irakurtzea tokatu zitzaidan klasean. Irakurri nuen eta jendeak txalo egin zuen. Beharbada orduan pentsatu nuen idazle izan nintekeela. Gauzak oso sinpleak dira askotan... Beste hipotesirik ere badut: garai batean, egunkaririk deitzen zidaten zutabe eta iritzi artikulua laburrak idazteko. Behin, zutabe horietako bat idatzi ostean, aitak egunkaria hartu eta zutabearen azpian *Harkaitz Cano*, idazlea irakurri zuen. Nire sinadura, alegia. *Baina, hi, idazlea al haiz, ba?* galdetu zidan. Eta nik *BAI!* erantzun nion. Liberazio baten modukoa izan zen hura erantzun izana, aurretzean bakean uzten ninduten.

> Gainetik zama handia kendu zenuen, beraz, zeure buruari eta ingurukoei idazle zinela aitortzean.

Hala da, bai. Azken finean, jendearengan eragin bat

izateko idazteaz gain, jendeak bakean uzteko ere idazten dugu neurri batean, mundu honetan gaizki ikusia baitago ezer egin gabe bizitzea. Horrek zertan egiten du lan? Utzizue, idazlea da, egingo du zerbait. Bestalde, betidanik izan dut idazteko grina; gogoan dut 6-8 urterekin kazetaria izan nahi nuela, baina albisteak asmatzen zituen kazetaria. Geroago jakin nuen kazetariaren lana ez zela albisteak asmatzea, gertakizunen kronika ematea baizik. Etxean ordu asko ematen nituen egunkarietako orriak mozten eta albisteak asmatzen. Azken finean, kontakizuna, narrazioa bera, gurekin datorren zerbait da, idazlea izan ala ez.

> Lubaki Banda taldeko kide izan zinela dio, haserako lerroetako batean, zure kurrumulumak; zeren, zehazki, Lubaki Banda?

Geronek idatzitako testuak irakurtzeko elkartzten zen taldea zen Lubaki Banda; Urruzuno bezalako lehiaketetan saridun suertatu ginen gazte batzuk eta Susa argitaletxearen inguruko jendeak sortu genuen 1993. urtearen bueltan. 15 edo 16 urterekin, ez zen erraza idazteko zaletasuna zuen jendea topatzea, eta esperientzia oso aberasgarria izan zen, nahiz eta taldea osatzen genuen lagunetako bakoitza Euskal Herriko punta batekoa izateak taldearen mugikortasunari gehiegi lagundu ez. Bermuden triangularen moduko zerbait ginen...

> **Ikasketaz abokatu, ofizioz idazle.**

Kuriosoa da: jendeak uste zuen zuzenbidea ikasten ari nintzela eta idaztea nire zaletasun edo *hobby* zela; baina alderantziz zen, zuzenbide ikasketak ziren *hobby*. Egia esan, ez dakit nola bukatu nituen ere. Neurri batean, hala ere, zuzenbideak badu literaturarekin nolabaiteko antzekotasuna, anbiguotasun eta zehaztasunaren eremua zingiratsua baita, nola zuzenbidean, hala literaturan. Eta nik eremu zingiratsu hori dut gus-tuko.

> **Nola definituko zenuke, hitz gutxitan, zure es-tiloa?**

Zaila da definitzea; gainera, oraindik nire estiloaren bila ari naizela sentitzen dut. Kontakizun nagusitik pix-ka bat aldendu eta istorio paraleloak kontatzeko joera natural bat badudala uste dut, digresiorako joera natu-ral bat, alegia. Bestalde, gustuko dut oinarri batetik abiatu eta, iparrorrotzaren laguntzaz, istorioak nora na-raman deskubritzea, kontakizunaren garapenean sor-presak topatzea. Distantzia luzekoa baino laburrekoa



gehiago naizela ere esango nuke, hots, ipuinzalea. Ipui-na amaitzen da eta utzi, abandonatu egiten duzu. Ki-tto, amaitu da.

> **Orain arteko bere obra aztertuta, surrealismo-ra edo hain agerikoa edo azalekoa ez den mundu batera jotzeko joera natural bat badu, baina, Har-kaitz Canok...**

Egia da, bai, neure burua kontrolatu beharra dauka-dala batzuetan, kontakizuna onirikoegia edo ametsen mundutik gertukoegia aterako ez bada. Hala ere, su-rrealismora jotzeko joerarena ez da ondo interpretatu. Gauza irrazionalak omen daude nere testuetan; kon-forme, hori hala da. Baina ez dut uste irrazionaltasun hori errealitatearen aurka doan zerbait denik. Irrazio-naltasuna errealitate ezarekin identifikatu da eta ez na-go horrekin ados. Gauza irrazional andana egin ohi du-gu denok egunero. Azken finean, irrazionaltasuna erre-alitatean sartzeko ate bat da, kontaketan sartzeko ate bat. Nire ustez, badago, neurri batean, errealitatea irra-zionaltasunaz esplikatzetik.

> **Zure liburuetan, halaber, nolabaiteko blues gi-roa isladaturik dagoen sentipena izan ohi dugu zen-baitetan irakurleok. Tronpeta jolea, kea, sabaitik zintzilik etengabe biraka ari den haizagailua... Iru-di hori ematearen bila al zoaz?**

Idazle guztiok dugu gure kutxa beltza. Kutxa beltza-ri uko egin diezaiokezu, baina ez da erraza. Borroka zaitezke, ez dakizuna egiten saiatuz, zure berezko ezau-garrien, inpultso naturalen aurka, baina zaila da. Zai-la, baina era berean erakargarria. Ez dakizuna egiten saiatzeak baitu benetako interesa. Hala ere, bere be-rezko estiloaren edo joeraren aurkako borroka latz ho-rretan, iristen da momentu bat zeinetan idazlea, bere joera horri trabak jartzeaz guztiz akiturik, erotzeko zo-rian egotera iristen den. Borrokatzeari utzi eta bere kut-xa beltza gailentzen da azkenean. Liburu batzuetan na-barmen ikus daiteke prozesu hori. Izan ere, zaila da norbere kutxa beltza, kontakizunaren haseratik bukae-rara, guztiz ezkutatzea.

> Tarteka, beraz, tronpeta joleak zure kutxa beltzetik burua atera eta kontakizuneko lerroen joana blues doinuz janzten du...

Izan liteke, bai. Aipatu duzun tronpeta jolea, esaterako, nire kutxa beltzean dagoen norbait da. Kutxa beltz horretan daude, halaber, nire lagunek kontatutako istorioak, Cortazar bera, Hemingway... Eta guzti hauek, nire liburuetan agertzen dira ondoren. Azken finean, guztiak datoz nirekin, bat gara. Norbaitek pentsatuko du aipamen hauek, agerpen hauek, bortxatuak direla, ez direla sinesgarriak, apaingarri moduan txertatu ditudala eta ez direla keinuok istorioan era natural batean barneratu. Sinesmenaren eremuan sartuko ginatke. Nik, idazle eta artista batzuei sinesten diet era naturalean egiten dituztela horrelakoak, beste batzuei ez hainbeste...

<<Irrazionaltasuna errealitate ezarekin identifikatu da eta ez nago horrekin ados. Gauza irrazional andana egin ohi dugu denok egunero. Azken finean, irrazionaltasuna errealitatean sartzeko ate bat da, kontaketan sartzeko ate bat>>

> Gidoigile lanak egindakoa zara, telebista eta zinema munduarekiko nolabaiteko lotura duzu... Kamera atzean ikusiko al zaitugu inoiz?

Gure belaunaldikook era bisual batean idazteko joera dugu, hori hala da. Dirurik gabeko zine zuzendarriak gara, funtsean. Hala ere, gaur egun ez didate horrenbesteko inbidiarik ematen zine zuzendariak. Zehaztasunaren kontuagatik, batik bat. Zinean nola adierazi, esaterako, etxe bat hutsik dagoela? Kamera hartu eta gelaz gela inor ez dagoela erakutsiz? Zine zuzendaria etxea hutsik dagoela erakusteko eginahalean tematuko balitz, ordea, zerbait ezkututzen ari ote den inpresioa sorraraziko luke... Idaztean, berriz, etxea hutsik dago esanaz, etxea hutsik dagoela transmitituko diogu irakurleari. Egia da, baita ere, leku bat deskri-

batzean hiru segundoko plano batekin lortzen dela zinean, literaturan bi orrialdeko testu batekin agian lortu ere egingo ez dena. Egun, ikusi berri dudana pelikula bati buruz norbaitekin hitz egitea hutsak asebetetzen nau; ariketa hau, pelikula berriro errodatzen aritzea bezalakoa da, aktorerik gabe, kamerarik gabe, hitzekin soilik.

> Ipuin liburua, narrazio luzea, poesia... Literatura mota ezberdinak landu dituzu maisutasun handiz.

Ariketa mota ezberdinak landu ditut; poesia, esaterako, motza da narrazioaren aldean, eta buruan idazteko aukera dago. Narrazio luzean, aldiz, ez da erraza denbora luzez hari narratiboa mantentzea. Kasu honetan, narrazioa idazten hasteko momentuarekin asmatzea da garrantzitsuena. Hainbat gauza argi izatea komeni da, pertsonaiak, inpulsoak... Baina, era berean, ziurgabetasun puntu hori mantentzea ere ezinbestekoa da. Oreka bat egon behar da bi elementuen artean. Gauza gehiegi argi edukita, motibazioa jaitsi egiten da. Zertarako idatzi? Hari gehiegi badaude irekirik, aldiz, galtzeko arriskua handiagoa da. Oreka momentua aurkitu eta olatu hori hartzea, funtsezkoa da. Zenbait gauza argi izanda, baina istorioa usteltzen hasi aurretik.

> Ipuin bilduma idaztea, berriz, ariketa erabat ezberdina izango da...

Nobela edo ipuin liburua egitea, ariketa ezberdinak dira, bai; bietatik errazagoa zein den esatea, ordea, zaila da. Nobela bat idazteko planifikazio minimo bat behar da. Irakurleagoak, orokorrean, nobelak nahiago ditu, eta egia da, baita ere, nobelagileari errazago barikatzen zaiola, baldin eta kontaketak, gorabeheratsua izanagatik, amaiera ona badu. Ipuin liburu batek hasi eta buka izan behar du ona, KOz irabazi behar du. Bestalde, oso istorio gutxi daude benetan 600 orri eskatzen dituztenak eta badirudi zure totxoa idatzi arte ez zarela benetako idazle bilakatzen...

> **Haur eta gazte literaturan ere ari zara. *Omar dendaria, Itsasoa etxe barruan* edo *Lesterren logika* bezalako liburuak argitaratu dituzu, besteak beste...**

Egia esan, kasualitatez hasi nintzen alor honetan lanean, enkarguz. Haur eta gazte literaturan, istorio berbera konta daiteke, baina hitz esparrua mugatu beharra dago. Alor honetan erantzunkizuna handiagoa den arren, ez da komeni paternalismo hutsean erortzea. Gauzak sinplifikatu egin behar dira eta argiago idatzi. Dena den, poztasun iturri agortezina da haur eta gazte literaturan jardutea. Liburua ilustratua izatea, esaterako, ederra da. Zinearen aspirazio zapuztuaren kontsolazio txikia litzateke marrazkilariak zure istorioa nola birsortzen duen ikustea. Marrazkilaria eta idazlea, biak dira koautore. Biena da arrakasta edo biena porrota.

> **Irakurle gaztetxoentzat argitaratu duzun azken liburuan, *Lesterren logika* izenekoan, ez da, ordea, helduei zuzenduriko keinurik falta...**

Lesterren logika helduagoentzat da, agian; kontaktuzunak helduei keinuak egiten dizkie zenbait unetan. Keinu horiek, gainera, liburuan txertatzen dira jakinik haurrak ez dituela ulertuko. Hala ere, ez da txarra zenbait gauza ez ulertzea, aukera bat da, sabaizulo moduko bat. Hitzen bat edo espresioaren bat ez ulertzean, jarrera bi har daitezke: amorratzea edo zerorrek suposatzea. Suposizioaren bidearen aldekoa naiz ni, litekeena baita ipuinak funtzionatzea, ulertzen ez den hori suposatzeak eragindako zentzu ezberdina hartuz. Kasurik onenean, gainera, posible da istorio paralelo hori jatorrizkoa baino hobea izatea ere!

> **Zenbateraino izan ohi duzu irakurlekoa gogotan idazten ari zaren bitartean?**

Batzar moduko bat daukat nik buruan, buru batzarra deitzen diodana, nire gurasoek, arrebak, lagunek, Borgesek, Italo Calvinok eta abarrek osatua. Zerbait idatzi bezain laster, buru batzarrari igortzen diot, batza-



rreko partaideek imajinarioki irakur dezaten. *Zer pentsatuko luke, esaterako, nire koadrilako Aitorrek hau irakurriko balu?* galdetzen diot neure buruari. Aldi berean, neronek eraikitzen dut Aitorren iritzia. Neurri batean tranpa pixka bat egin ahal dudan arren, neure buruarekin zorrotza izatera derrigorturik nago ariketak zerbaiterako balioko badu.

> **Euskaraz erabat zuzen idatzi beharra hautsi ezin den lege bilakatu den honetan, ba al dago ahozkotasetatik jasotako hitzak, espresioak, esamoldeak... testuetan txertatzeko modurik?**

Poliki poliki pausoak ematen ari garen arren, gai honetan zurrunezi jokatu dugula uste dut. Gidoi batean *esnifatu* idatziz gero, zuzentzaileak arnastu erabiltzeko gomendatuko dizu. Sentitzen dut, baina ez da gauza bera, *arnastu* hitzarekin ez dago *esnifatu* erabiliz lortu nahi nuen efektu bera lortzerik. Oraindik ere horrelako arazoak dauzkagu. Literatura afroamerikarrean, esaterako, hitzegin bezala idazten dute eta ez dago inolako arazorik. Gure idazteko era, ahozkotasan lokalera ireki beharko litzateke. Hogeita bost urtetan hainbat film eta telesail euskarara itzuli den arren, ez dago espresio kolokialak biltzen dituen bankurik. Ez da sistematizazio bat egin, oraindik ere zalantza egiten baitugu *espejo retrovisor* edo *encogerse de hombros* bezalakoak itzultzean. Nola esaten da *espejo retrovisor* euskaraz? Energia kopuru handia galtzen da honelakoetan...


> **Dioten bezain garrantzitsua al da lanaren izenburua? Zenbaterainoko garrantzia ematen diozu zuk izenburuari?**

Batzuetan, izenburua haseratik oso argi izaten dugu eta hori lagungarria da, koordenatu batzuen antzeko funtzioa betetzen baitu idazterako orduan. Beste muturrean, badira inprentara izenbururik gabe iristen diren liburuak ere... Izenburua problema bat da neurri batean, kontakizuna markatu egiten duelako. Izenbururik ez jartzea ere ez dago ondo ikusia... Autorearen kapritxoa behar luke izan, nahiz eta beti horrela izan ez. Argi dagoena da hasera-haseratik izan ezean, buruhauste bat dela amaierararte. Badira izenburu esplikaezinak, *Vredaman* bezalakoak, adibidez, edo ia ia marka

bihurtu diren *Sorotan Bele* bezalakoak. Zer da *Sorotan Bele*? Aleatorioki jartzen duzu izen bat eta marka bihurtzen da.

> **Langile arruntak, astelehenetik ostiralera 8 orduko lan eguna, astean 40 ordu, abuztuan oporrak... Eta idazleak?**

Idazle izateko autodiziplina handia behar da; gure kasuan, egunak ez dira euren artean gehiegi bereizten. Asteburuan telefonoa ixilik eta posta elektronikoa geldirik egotea, hori da, agian, alderik handiena. Jendeak uste baitu beti libre zaudela eta hori arazo bat da. Gauzez idatzi ohi nuen garai batean, igande txikiak bezalakoak baitira gauak, etenik gabeko ordu blokeak. Hala ere, mundua gure lan egiteko moduaren aurka doa, dena baitago tipifikaturik, lanean ebaluazioak egiten dira... Nire kasuan, ebaluazio bat egingo balidate, askotan ez nintzateke 6-8 ordutan egindako zerbait konkretua edo bukatua erakusteko gai izango.



Harkaitz Cano idazlea

ARKAITZ CANO Iarraren ahoa

> Ari al zaizu literatura, berari ematen ari zaren guztia itzultzen?

Literaturak, guztiaren gainera, bizitzeko eta pentsatzeko modu bat eman dit. Jende ugari ezagutzeko aukera ere bai, noski, telebistako jendea, artistak, sukaldariak... Jende askok baitu testuen beharra, euren ideiak ordenatzeko. Idaztea, eta irakurtzea, munduan egoteko era bat da. Irakurri eta idatzi: irakudatzi. Aditz berri horren erabilera bultzatuko nuke nik. Edozein kasutan, ez da ahaztu behar idaztea ofizio bat gehiago dela, eta idazlea, berri, etengabe pilotu automatikoa martxan daukan norbait, inguruan gertatzen diren istorioak ezagutu eta ikusi nahi dituena.

> Adituen ustez, bost euskal idazle onenen artean omen dago une honetan Harkaitz Cano...

Egia esan behar badut, neure burua hastapenetan ikusten dut oraindik, bilaketa lanean. Sariak, rankingak eta horrelakoak hor daude eta idazleok horiekin bizitzen jakin behar dugu, baina hori guztia benetako guztia benetako guztia benetako jardun literariotik aparte dagoen zerbait da, gure benetako pasio den idaztetik urrun. Komeni dena da sekula ez ahaztea bat nondik datorren. Ondo gogoan dut, nola ibili nintzen, nere lehen poesia liburua besapean, argitaletxez argitaletxe. Susako Gorka Arresek esan zidan: *liburu hau ez diagu argitaratuko baina egin ezak bat hobea eta hori argitaratuko diagu*. Beti izango dut zor hori berarekin. Une hartan nigan sinetsi zuen, txeke zuri moduko bat eman baitzidan. Lanean murgildu eta *Kea behelainopean* bezala izango zena idatzi nuen.

> Idazle izateko asmo txoraa buruan duten horiei zuzenduriko aholkurik?

Irakurtzea funtsezkoa da, baita beti adi egotea ere. Bestalde, xehetasunak zaindu eta laztantzea ere, ezinbestekoa da. Kontuan hartu behar da, bigarren mailako pertsonaiek eta xehetasun txikiek, istorioa jaso egiten dutela. Xehetasunak zaindu beharrak atzeraka idaztea eskatzen du sarritan, baina emaitza, irakurketa paraleloak ahalbidetzen dituen istorioa izango da, dimentsio anitzeko istorioa, alegia. Azkenik, nola ez, idaztea, idaztea eta idaztea aholkatuko nuke. Ez dago beste sekreturik. Azken finean, idaztea arraroa bada, arraragoa da idazten ez duen jendea, denok baitugu kontatzeko zer edo zer. Gabonetan kontatzeko istoriorik ez duena da benetan arraroa.



FLASHA:

Itsasoa etxe barruan liburuaren hazia


Haur eta gazte literatura deitu ohi den alorrean, *Itsasoa etxe barruan* liburuarekin soilik bizi izan dut bete-betean asmatu izanaren sentipena; ideiaaren lehen hazia, New Yorkeko jatetxe mexikar batean jaso nuen. Jatetxe-ko hormak erdiraino urdinez margotuak zeuden eta mutiko bat zebilen, igerian ariko balitz bezala, bi besoez keinuak egiten. Tarteka, burua urdinaren muga baino gorago igotzen zuen, arnasa hartzeko itsasotik burua ateratzen ariko balitz bezala. Eszena hori ume ipuin bilakatu zen azkenean.

BURUHAUSTEAK

IZENBURUAREKIN:

Belarraren ahoa

Belarraren ahoa liburuak, izenburu asko izan zituen azkenekoa heldu artean. *Hitler Manhattanen* deitu nion haseran, nolabait deitzen zaren, azken izenburua hori ez zela izango ziur nekien arren. Jarraian, *Belarraren bisturia* ere deitu izan zen kontakizuna bolada batean. Amaiera aldera, *Belarraren ahoa* izena jartzea erabaki nuen, baina, poetikoegia zelakoan, Belarrezko aiztoa izena jartzea adostu genuen editoreak eta biok. *Belarrezko aiztoa*. Liburuak inprentan zegoela erabakia aldatu eta *Belarraren ahoa* jar zezaten agindu nuen azkenean.



AMA LAGUNDU

I

Egurrezko ate zuriaren kristala joz
tok, tok, tok,
zain.
Segundoak, bihotz gaztearentzat
eternitatea.

Belarria zuraren kontra...badator
gorputza hotza,
jada gelditu ezin den hotsa:
negarra,
gizakiaren beharra.
Korrika egiteko bultzada
zoroa
beroa.

Tindatutako ilea nahastuta
makal,
buruak alde egiten duen bitartean,
ezagutuko al nauzu?
nire izenaz agurtu nazazu.

II

Atzeko leihoan kala zuria
hark sendatuko du zure eria.
Goazen jolastera,
momentu hau bizitzera
gizaki zentzudunen antzera.
Atera kartak, tapetea, garbantzua
puntuak, eskoba eta txintxona,

amama.

Gauean esna kalean barrena,
kuleroak estufan erre dira,
udan, sei manta ohean
ez dago bere tenorean.

III


Ekartzen zaituzte,
eramaten
jaten,
edaten,
janzten zaituzte.

Abesten duzu,
jaten
edaten
gauza bat esaten:
Ama lagundu! Ama lagundu!

Ideiak solte,
kabitik eroritako txoria
ez duzu ezer ezagutzen.
Beldurra,
hitz egiten dizut.
Beldurra,
etorkizuna kontrolatzen duzu.

Eguzkia atera da,
eseri berriro bankuan.
Non da nire semea?
Zu, nor zara?
ez galdetu berriro
ez esan berriro:
Ama lagundu! Ama lagundu!
Nola lagundu zaitzaket?

Miren Juaristi



artea > 9



LA INCÓGNITA DE UHARTE

LA INAUGURACIÓN DEL CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO DE UHARTE NO DESPEJA LAS DUDAS SOBRE EL POLÉMICO PROYECTO

musika > 12



MUSIKASTE

LA MÚSICA DE HILARIÓN ESLAVA, FRANCISCO MADINA Y RODRIGO A. DE SANTIAGO, PRESENTE EN LA SEMANA MUSICAL DE ERRENTERIA.

zinema > 15



CINECITTÀ, 70 AÑOS

REFERENCIA DURANTE AÑOS PARA LAS GRANDES PRODUCCIONES INTERNACIONALES, LOS ESTUDIOS DE CINE ITALIANOS CUMPLEN SIETE DÉCADAS.

2007ko maiatza
LARUNBATA

12

GARA KULTUR GEHIGARRIA

mugalarari420



ere lengoage propri
obra eguitera eta scri
ca mundu gucietara l
batzeco hondela. Et
bataturic eceyn rep
oroc vste dute ecin d
hartan nola berce or
cceren oray guc iaur
tuçu estimatzen go
ri neure iaun eta ial
scarazco copblaba
nac. Ceren iauna l
zer duçun beçala i
çun eta çure esent
mituric heufcara
netic dad in aitzin
mundu gucietara
re lengoage prop
ceco sol
materia
ren abangara
othoyz egu
vicia eta ber

Bernat Etxeparekoak 1545
eskaintza moldekoa, egin zu
sortuko du bat baino gehiag
betiko leloekin gabiltzala ere

«MAIATZ» 25 URTE

IDADLE BELAUNALDI BERRI BAT BILTZEA
ETA IPAR EUSKAL HERRIKO
EUSKALKIAK ETA TRADIZIO LITERARIOA
EUSKARA BATUAREN MUGIMENDUAN
SARTZEA LORTU DU ALDIZKARIAK.



BALA ARTEAN JOLASEAN

Mari Aburtori elkarrizketa



Mari Aburto zamudio-tarra tiroz zauritu zuten zazpi urtekoa zela

“BALA ARTEAN JOLASTEN IBILTZEN GINEN”

Ia 70 urte igaro diren arren, Mari Aburtok ez du ahaztu 1937ko ekainaren 13a, Artxandako frontetik tiratutako bala batek bularra zeharkatu zion eguna. Miraria izan omen zen 7 urtekoa zen Mari bizi-rik ateratzea, erietxean zaindu zuten mojek behin eta berriroesan zioten modura.

Bere Zamudioko baserri ederrean izan gara Marirekin eta gustura kontatu dizkigu bizi-bizi dituen orduko oroitzpenak.

“San Antonio egunean izan zan, Artxandako tiroteoak izan zirenian. Gu, umiak, etxe aurrian (Derioko Ugaldeguren baserria) genbiltzan jolasten; neba eta bere lagunekin hamabost bat juntauko ginen. Artxandatik botatzen zeurien tiroak Deriora, Derion nazionalak ego-



zan. Balak kruzatzen ziren, eta gu erdien, balak kontatzen.

Halako baten, aurreko pinudi batetik, soldaduek, etxera sartzeko: ¡chavales, a casa!; eta etxerantza goantzela, blaust! jausi nintzan zakua bezala, kasik etxeko portalian sartukeran. Soldadu bi edo hiru urten ziren pinuditik eta portalera sartu ostien. Ni ez nintzan konturatu ezertaz, baino soltau ostien erroa gutxi, eta dana odola eta odola. Orduan, dana prisaz, anbu-

lantzian sartu eta Cruz Roja-ra, Deriora.”

Marik eskuak eragiten ditu, hitz egin ahala, eta, begi-ezpainen imintziaz eta ahotsa altxatuz edo apalduz, girotzen du bere narrazioa.

Derioko Gurutze Gorritik Durangora bidali zuten: ¡los graves a Durango! Gurasoei ez zieten utzi alabatxoari laguntzen:

“Han joan ginen Durangora, bost soldadu eta neu, anbulantzian; bat negarrez, metraila buruan eduki

zeben, beste bat berna zati bat kenduta; Durangon anbulantzia ezin izan zan herri erditik pasau; dena erreta egon zan, keia etxeetatik. Nik dena ikusten neban.”

Anbulantziak Berrizera eramane zituen, Merzedarietara, erietxe bihurtutako kolegiara. “*Un milagro, ha sido un milagro*”, esaten omen zuten moja eta medikuek, bala bizkarretik sartu eta bularretik irten ondoren, neskatila onik ikusita.

Berrizko mojen arretaz eta tratuaz esker oneko hitzak ditu Marik. Hala eta guztiz ere, oso gogorra egin zitzaion ospitaleko egonaldia hura; sendaketaz oso mingarriak zirela du gogoan, eta, batez ere, amaren falta:

“Txarto pasatu neban, inoiz etxetik urten barikua izanda, hilabete inguru gurasorik gabe, amaren beharra...; negar asko egin neban, gabetan batez be.”

Beste nahigabe bat ere izan zuen Berrizera iritsi orduko: “*Zorriak zirela eta, trentzak kentzea izan zan mojen lehen lana; han joan ziren nire trentza politik!*”.

Halako batean, etorri zitzaion ama bila, kamioi militar batean, eta itzuli ahal izan zen etxera, sendatuta; halere “*orain hoge urterarte mi-*

na izan dot heridan, balazoa jasotako lekuan”, diosku Marik.

Etxera pozik itzuliko zela esan diogunean, erantzun digu: “*Poza? Ez dakit. Gauza arraro bat sentitu neban.*”

“ZER ETE DA GERREA?”

Zazpi urteko neskatila batentzat gerra zer den konturatzea oso zaila dela esan digu Mari Aburtok. Gerraren lehen aipamena, gerra hasi aurretik entzun zuen, oraindik sei urtekoa zela:

“Aititeri ‘Euzkadi’ ekarten otzien hamaiketako trenian; periodikua trenetik bota eta etxeko txakurrak jasoten eban eta aitaiteri ekarri, eta honek arbolapian jazarrita irakurtzen eban. Behin, periodikoa ikusita, egon ziren ferrobiario batzuk aitaitarekin gerraren kontra hitz egiten. Aitite oso kontrarioa zan. Nik, hori entzunda, pentsatzen neban: Ze ete da gerrea?”

Marik aitortzen du berak gerran ez zuela gaizki pasatu, San Antonio eguneko balazoa jaso arte, behintzat; gogorragoa, hitsagoa izan zen gerra ostea.

Jolasa beste ardurarik ez zuten

umeentzat, gauza berri eta deigarri betetako egoera zekarren gerrak: soldaduen joan-etorriak, tiroak, hegazkinak, bombardaketak... :

“ Bi abioi ezagutzen genduzan, ‘el alcahuete’ eta ‘el abuelo’; oso baju ibiltzen ziren eta ia pilotuak be ikusten genduzan; bonbardeoa etorrerian, ezkutatu egiten ginan Uzena baserri ondoko koba batian. Behin bonba bat erori zan gure baserriaren kontra. Baina aititek ez eban baserriaren alde egiterik nahi: hil bihar bada, etxian! Orduan babesleku bat egin genduan etxe ondolan: zanja bat egin, gainean trenbideko trabiesak jarri, eta gainean, lurra.”

Era guztietako soldaduak ikusi zituen neskatilak baserrietik pasatzen eta makinatxorentzat prestatu behar izan zuen jatekoa bere amak:

“Batzuk oso edukaduak ziren eta faborez eskatzen zuten; beste batzuk fusilakaz sartzen ziren etxian, amenazuka: ¡lo que hay en España es de los españoles!, bota eutsion aititeri halako batek”.

K. Olate

GERRATEKO IBILERAK I

Iñaki Alkain • Auspoa, 1982



Iñaki Alkain. Auspoa. 1982. Iñaki Alkain eta Antonio Zavalaren artean buruturiko lan mardularen emaitza da liburuxka hau. Hiru ataletan banatua dagoe-na eta Auspoak orain dela urte batzuk abian jarri zuen sail aberats harren barruan kaleratua. 1920ko Afrikako gerraren ingurumarian, bertsoak eta kanta-paperak ugari kaleratu ziren. Handik urte batzuetara, Afrikatik penintsulara hedatu zen Gerra Zibilak eragin handia izan zuen literaturan. Hasiera batean, gerraz idatzitako poemak eta bertsoek ez zuten hedapen gehiegirik izan. Gerraondoan, zentsura- arazoak behin desagertuta, areagotu ziren eleberri eta ipuinak

Argitaratu ziren lanen artean, gehiengo zabala gerran zuzenean parte hartu edo gatazkaren ondorioak nabarmen sufritu zituztenen oroitzapenak dira. Esku artean dakar-gun liburu hau bezalatsu. Franco hil ondorenean asko eta asko animatu ziren argitara ateratzera. Horietako batzuk, bertsolariek edo bertso munduaren inguruan aritu izan direnek moldaturiko autobiografiak dira. Guzti hori batzen eta txukuntzen Auspoa bildumak lan

izugarria burutu du, aipamen berezia merezi duen Antonio Zavala zuzendariak, jesuita eta euskaltzainak.

Hegoaldeko gerra-kontuak argi eta garbi aipatzen dituen euskarazko hasiera bateko memoria liburua da aipatu nahi nukeena, Iñaki Alkain gipuzkoarrarena. 1981ean plazaratu zuen Auspoak, urte dezentte beranduago beraz. Izan ere, kontuan hartu behar da galtzaileek euren bertsioa publikatu ahal izateko, diktadorea hil arte itxaron behar izan zutela.

Iñaki Alkain, bertsolaria zen, aita bezalaxe eta Urnietan jaio eta hazia. Hiru liburuxketan atondutako *Gerrateko ibillerak* kontatzen dizkigun autobiografia bat da. Bertsio luzea, baina bilduma osatua da hau. Gudari gipuzkoar baten ibilbide luzea deskribatzen digu zehaztasun eta grazia handiaz: Donostia aldetik, Ernio, Ondarroa, Gernika eta Elgetara; gero Legutioko eraso, Kalamua, Saibigain, Gernika, Bizkargi, Artxanda; Bilbon preso hartu eta frankistekin ha maika borroka leku eta penintsula erdia korritu behar izan zuen. Bi-

txikeria ugari datoz liburuan.

Urnietan, jaiotetxean du hasiera liburua 36ko uztailaren 18an, bazkalondoan hain juxtu, ganaduekin lanean ari zelarik Alkain gaztea, errementariarengana joan zen gurdiarentzako gurrpil berri eske. Hantxe bertan, entzun zuen lehen albistea: “*Afrikar ejertzitua altxatu zela. Denbora gutxian Donostia aldean mugimendua hasi zen, komiteak martxan jarri ziren*”. Alkainek etxea uzteko erabakia hartu zuen eta Santio Menditik abiatu zen eskopeta bizkarrean, Jose Beaskoetxearekin batera Hernani aldera. Hortxe hasiko ditu bere *Gerrateko ibilerak*, lehen liburuki honetan, Nafarretera heldu bitarte.

Donostiara iristea lortzen dutenean, kostari jarraituz Zarautzako bidea egingo dute. Zestoatik barna berriz, Azpeitira (Loiola) iritsiko dira. Bidanian eraso jo zuteneko gertaera zehaztasun handiarekin kontatua da: 36ko irailaren 19a zen hain juxtu. *Destakamendu bakanetan bananduta hiru puntu ezberdinetatik erasotu genuen Urkizuko posizioa (Tolosa bukaera bukaeran kokatua) eta garaitu egin genuen. Metrailadore tripode bat*

hartuta, bost kaxa muniziorekin eta ordezko piezekin.

Ernio dator gero, Mutriku-Ondarru-Gernika ibilbidean Bizkaian barneratzen dira, Basalgoko frentean behin baino gehiagotan bertso saio ederrak egindakoa dugu gauaz, guda lerroaren bestaldetik zegoen erreketek amezketar batekin sesioan. Bergaratik Plentzia aldeira goazela, ezkerretara Elgeta eta Eibar aldean dago Basalگو mendia. Kasko horretan, hamabost bat egun pasa zituzten. Etsaiaren aldean bertsolari bat zegoela abisua pasa zioten Alkaini eta gau batez tratua egin zuten hurrengorako, hala-ko lekutan elkartu eta egonaldi bat egiteko. Bi trintxeren erdian zegoen lekua hautatu zuten. Errekete edo falangista alde horretan zegoen amezketarrak izugarritzko arrazoi sakonak ematen zituen; bere bertsoak eta diskurtsoak takigrafiaz hartzea pentsatu zuten. Horrela jaso ziren Amezketako artzain mutilaren eta Alkainen bertso saioak, liburuan txukun txukun eta ordenatuta ageri diren bezalaxe.

Basalگو mendi hartatik Bermeo aldeira egin zuten, batailoi osoa antolatu eta osatzera. Azaroaren azkeneko egunetan Urbinan zeuden, handik Billareala joan ziren. Etsaiak Elosu eta Nafarrete aldean zeuden eta eurak Billareal aurrez-aurre duen ibaiaren ertzean. Igerian zeharkatu eta herriko kanpandorrea gerturatzea lortu zutenean kalte

izugarria egin zieten.

Gabon egunean Bermeoko itsasadarra utzita Ubidea aldeira abiatu ziren. Arratsalde partean, eskuinezker inguratu zituzten etsaiek. Bidean lagun ugari gelditu ziren. Zeanuritik ostera, Elosura joan ziren, baztarka-baztarka Nafarretera igo zirelarik. Nafarreteko Hiltegia izenez bataiatu zuen Alkainek, zauritu eta hildakoak aintzat hartuta, milaka izan baitziren. Borrokaldi gogorra inolako ezbairik gabe, Billarealگو baino askozaz latzagoa.

Alkainen bizipenez gain gerra denborako egunkariak ere zeresan handia dute lan honetan. *Euzkadi* eta *Eguna* batez ere, atal bakoitzaren bukaeran oharretan erantsi nahi izan du Antonio Zavalak. Liburuaren sendogarri eta indargarri izan

daitezten eta duda zaleentzat sinesgarriago suerta daitezten. Liburuak asko aberasten dute gehigarri horiek, beraz, irakurleak patxada eta tartetxo bat hartu behar luke irakurtzen.

Oroitzapenak dira guztiak ere, gertatu eta urteetara idatziak. 35 urteren buruan hau behintzat. Artean gauza gehiegi publikatu gabe zegoen eta Antonio Zavalaren egin ahala azpimarratu beharrekoa da, gogor saiatu zelako eta ate berriak irekita utzi zizkielako atzetik etorriko ziren gogoeta guztiei.

Doltza Barandiaran



NERONEK TIRAKO NIZKIN

Sebastian Salaberria · Auspoa, 1964



Sebastian Salaberriaren liburu honek 1964ko “*Gui-púzcoa*” nobela saria irabazi zuen; ezin daiteke esan, hala ere, *Neronek tirako nizkin* zinezko nobela denik, sormenaren emari baino egilearen bizipenen isla zintzoa baita; Koldo Mitxelenaren hitzetan, “*orrexek kontatzen dizkigu, argi eta bizi, bere bizitzako gertaerak eta gora beherak, Oiartzungo jaiotetxetik asi eta azken gerrateko ezbearrak eta naigabeak burutu arte*”.*

Bi zati nagusi bereizi daitezke liburuan: soldadu joan behar izan zuten arterako urteak, eta gerran edo gerraren ondorioz gertatutako gorabeherak. Zatiok bananduta ere argitara zitezkeelakoan nago, berezko osotasuna baitaukate.

Hasierako bost atalek XX. mendearen lehenengo hamarkadetan gure baserrietako bizimodua nolakoa zen ezagutzeko lekukotza baliotsua eskaintzen digute: ohitura, sinesmen eta janzkera, hazienda eta nekazal lanen antolamendua, maizterren miseria eta babes-eza, baserri-jabeen jauntxokeria eta morroien esplotazioa. Seigarrenetik hamabigarrenerako ataletan, baserri-morroi izateari utzi gabe ere, beste gi-

ro batean sartzen da protagonista: ikitz-garraiolar batekin tarteka lan eginda, diru freskoa poltsikoan, Donostian eta inguruko herrietan mugitzen hasten da Salaberria gaztea; nekazal giro estu eta bizimodu laztetik, ekonomia eta bizi-giro mistoaren nolabaiteko oparotasunera. Ezin aipatu gabe utzi VIII. atalean kontatzen duen pasadizoa: Txirritari Easo kaleko “*Bar Manolon*” bertsoa bota zionekoa, baita honek erantzun ere.

Haurtzaro eta lehen gaztaro gogorak eraman ondoren, bizitzaz gozatzen hasi orduko, soldadu eramaten du Salaberria Donostia bereganatu duen Frankoren armadak. Hor abiatzen da liburua gai nagusia den gerrako ibilbidearen kontakizuna: Iruñeko soldadu-instrukzioa, Legutiotik Igorreraino egingako kanpaina laburra, protagonista zauritua gertatzen denekoa liburua gako bihurtzen den gertakizuna, Iruñeko eri-etxeke egondia, eta anaiak berriro biltzen direnekoa. Bada kontraera zehar, azaldu gabe ere, beti presente dagoen norbait: Kaximiro, Sebastianen anaia zaharragoa, “*euzkotar oye-kin*” joan zenez, gerrak etsai bihurtua; hor ibiliko da Sebastian hilda

aurkitzen dituen kontrarioen aurpegiak arakatzeko, anaia aurkitzeko beldurrez; Kaximiro ere berdin ibiltzen omen zen, gero jakingo dugunez. “*Auxen izango ukek munduan izan leiken gauzik tristeena, sekulan ezer izan ez degun anayak elkarri tiroka bata bestea iltzea!*”, laburbiltzen du Sebastianek liburua mezu nagusia.

Euskara bizia darabil Sebastian Salaberriak, herrikoia. Liburuak ahozko literaturaren usaina du, hitzaurrean Antonio Zavalak nabarmentzen duenez. Zuzenak, zehatzak eta biziak dira gertaeren kontraera, zein pertsona, leku eta gauzen deskribapenak, berdin Gabiria baserriaren egitura, terreno, eta haziendarena, edo ugazabaren meztarako janzkerarena, nola Albertia mendia erasotzen duen kanoien kargu dauden artilleroen antolamendu eta jardunbide zehatza.

Sentimenduak lotsa handirik gabe azaltzen dizkigu egileak; penak edo pozak medio, erruz isurtzen dira malkoak liburuan. Iritzi politikorik, berriz, ez da agertzen, gerra politikoa batean izandako parte hartzea kontatzen den arren. Morroi garaian ugazabari oldartzeko gauza izan den Sebastian, soldadu era-

maten dutenean, egokitu zaion alderdian egiten du gerra, kontzientzia arazo handirik gabe, itxura batean: *“hauek dira gureak, eta besteak, kontrarioak”* besteekin anai kutuna joana badu ere. Tokatzen zaion tokian eta arrastoan dabil Sebastian, besteen parean, nabarmendu gabe. Ulertu behar da, nolana-
hi, liburua argitaratu zen garaia ere ez zela egokiena juzgu politikoak azaleratzeko.

Aipatu behar da, hala eta guztiz

ere, liburuan zehar azaltzen den gerraren aurkako jarrera garbia. Salaberriaren kritikak ez du zerikusirik Yantzik Afrikako gerrari jarritako bertsoen gaitzespen gordin eta erabatekoarekin; baina, gerra erabaki eta agintzen dutenak aipatu gabe ere, Salaberriak erakusten du gerra zein kaltegarri eta zentzugabea den jende xehearentzat; anaiak elkarri tiroka aritu beharra da *“soldaduentzat kaltian”* egiten den gerra horren zentzugabekeriaren gailurra. *Neronek tirako nizkin*

liburu antimilitaristatzat har dezakegu, beraz.

Laburbilduz, gomendatzen dut Sebastian Salaberriaren oroitzapen liburu hau, euskara jator, eder eta errazean idatzia dagoelako, kontatzen dituenak era bizian kontatzen dituelako eta gure herriaren garai bateko gorabeherei buruzko gauza jakingarriak erakusten dizkigulako.

K.Olate

* L. Mitxelena, *Egan*, 1964, 1-6, 173 orr.

EGUZKI BELTZAREN SEKRETUA

Alberto Ladron Arana • Elkar, 2004

Alberto Ladron Aranaren (Iruñea, 1967) hirugarren eleberria da *Eguzki beltzaren sekretua* —lehenago *Itzalaren baitan* (2001, Kutxa Fundazioa), eta *Xake Mate* (2002, Elkar) argitaratu zituen, eta ondoren *Arotzaren eskuak* (2006, Elkar)—

Espioi-eleberri baten aurrean gaudete. Espainiako gerra zibila amaitzeaz eta II. Mundu Gerra hasteko zorian dagoenean kokatzen dira gertakari nagusiak. Erdi euskalduna eta erdi alemana den espioi bat da protagonista, Oskar 19 urteko iruindarra. Espainiako gerran Bizkaiko frontean borrokatu ostean, Iparraldean babesturik bizi dela, Jaurilaritzako zerbitzu sekretuek ingelesez zerbitzu sekretuen eskae-

rari erantzunez Parisa bidaltzen dute eta handik Alemaniara, naziek Tibetera egindako Eguzki Beltza izeneko espedizio batetik ekarritako zerbait, izugarria bezain sekretupekoa, zer den argitzeko. Zerbait misteriosu hori, nobelaren azken atalean argituko denez, Longinos Lantza da, hots, gurutzean iltzaturik zegoen Jesukristo hiltzeko Longinos erromatar soldaduak erabili zuen arma. Eta sekretua gordetzen duten SSetako buruzagietako bat, Weber, Oskar-en aita da, hilda zegoela uste zuena.

Oskarrekin batera, baina beste aldean, Del Valle, Francoren zerbitzu sekretuetako polizia azaltzen da, Gestapoko agenteekin elkarlanean ari dena. Del Valle Oskarren

itzala izango da lehenengo, Iparraldean, eta gero, Parisen eta Alemanian.

Espainiako gerra zibila, II. Mundu Gerraren atarian dauden Frantzia eta Alemania, espioiak, nazismoa eta SSen sinesmen esoterikoak nahasten dira. Ekintzaz beteriko nobela da, espioi-eleberri batek behar dituen osagaiekin hornituta: tiroketak, jazarpenak, galdeketa bortitzak eta suspensea.

Amaiera arte ondo egituratutako istorioa da, irakurlearen aditasuna mantentzea lortzen duena, baina azken atalean gertakariak sinesgaitzak eta fantastikoegiak bihurtzen dira, adibidez SSetako buruzagiek errito batzuk egiten dituzte Longinos Lantzarekin eta honek botere bereziak azaltzen ditu; gertaera ho-



riek izaera sinbolikoa dute eta ge-roago gertatuko den sarraskia, eta aliatuen —bereziki AEBen— garaipena islatzen dute, bukaeran Lantza boteretsua Eisenhower-en eskuetara iristen baita. Sinesgarritasun gorabehera horiek alde batera utzita, ondo kontatutako istorioa dela esan daiteke.

Egileak dokumentazio lan handia egin duela nabaritzen da: zerbitzu sekretuetako xehetasun ugari ematen dira, bereziki SS eliteko taldeari buruz; istorioa garai jakin batean kokaturik dago eta orduko giroa fideltasunez islatzen du, bereziki II. Mundu Gerra aurreko Alemanian eta Frantzian bizi zen egoera; dena dela, ezin da esan nobela historiko baten aurrean gaudenik. Gertaera eta pertsonaia historikoak fikzioarekin nahastuta azaltzen dira; lehe-

nengoen artean, besteak beste honako hauek aipa daitezke: Gernikako bonbardaketaren aipamena, nazionalak Katalunia hartzea, SSak, Pio XI.a Aita Santuaren heriotza eta Pio XII.aren aukeraketa, Frantziak eta Ingalaterrak Francoren erregimena ofizialki onartzea, Alemaniak Austria eta Txekoloslavia bereganatzea, Himler, Hitler, Eisenhower...

Bi ikuspegitik kontatuta dago: batzuetan, lehenengo pertsonan, Oskarren ikuspegitik; beste batzuetan, hirugarren pertsonan. Hasieran, idazleak itzel tartekatzen ditu bi ikuspegi horiek; kapitulu batean Oskarrek lehen pertsonan kontatzen ditu gertakariak, eta hurrengoan, egoera berbera, Del Valle espainiar espioiaren ikuspuntutik aurkezten da, hirugarren pertsonan.

Liburu bizia da, eta egilea irakur-

lea ezustean hartzen saiatzen da, gertakari berri batekin, akziozko une batekin edo bestelako korapilo bixiren batekin...

Hizkuntzaren sormenari dagozkionez, irudi ugari darabiltza Ladrón Aranak, eta azpimarragarriak dira egiten dituen deskribapenak: giroa, pertsonaiak, egoera bakoitzaren kolorea zehaztasunez eta hiztegi aberatsez idazten ditu.

Laburbilduz, *Eguzki beltzaren sekretua* liburu entretenigarria eta oportetan irakurtzeko gomendagarria da. Egiten diren aipamen historikoak kontuan hartuz, baliagarria izan daiteke, gainera, ikastetxeetan Historia ikasgaiari II. Mundu Gerra lantzeko ere.

Jon Urutxurtu

NIRE DENBORALDIKO IBILERAK

Iñaki Isasmendi • Barriketatik, 2000

Jerardo Elortza irakaslearen bitartez iritsi zait *Nire denboraldiko ibilerak* liburua ezagutzeko aukera eta memoria historikoan eta guda garaiko testigantzetan arakatzeko aukera ere. Gaia gustukoa zaidanez, gustura irakurri dut Iñaki Isasmendi azkoitiarren bizipen aitortza.

Nire denboraldiko ibilerak aipamen bi ditu hitzaurre modura. Bata argitaratu garaiko Azkoitiko alkate-

sarena eta bestea Iñigo Aranbarri idazle azkoitiarrarena. Horietan bietan, nagusiki azpimarratzen da Iñaki Isasmendiren izaera eta balio pertsonala: konprometitua, militantea eta abertzalea. Horrez gain, dokumentuaren garrantzia nabarmentzen dute idazleek gerra gaitzaileen memoria berreskuratzeko tresna modura.

Zentzu horretan ekin diot neuk ere irakurketari, memoria osatu eta gu-

re aurreko belaunaldien lekukotasuna topatu nahian. Beraz, jakin-mina ase; gertaera historikoak gertutik ezagutu eta garai hartako gizon emakumeen izaerara hurbildu. Horiek izan dira nire asmoak.

2000 urtean argitaratutako liburuan Isasmendik, modu autobiografikoan, eguneroko batean bezala, kontatzen dizkigu bere bizitzako pasarte garrantzitsuak. Oroimen gaitasunaren jabe izanik, historiari eta



kronologiari leiala izanik, agertzen dizkigu berak eta bere lankideek egindako ibilerak, bizitza osoko ibilerak. Izan ere, kontakizuna ez baita gerra garaira mugatzen, aldiz, heldutasun garaira ere da zabaltzen.

1936ko uztailaren 19an kokatzen du bere kontakizunaren hasiera, bere familia eta herriaren egoera deskribatuz:

Herritar guztiok euskaldunak ginen, eta hala bizi ginen, euskaraz. Hain herri euskalduna sen gurea non herri osoan euskara besterik ez zen entzuten. Ohiturak ere euskaldunak genituen eta auzoetako eta herriko enparantzetan, euskal dantzak ziren nagusi. Politika ondo sartua genuen inguru guztietatik nahiz eta abertzaletasuna berri samarra izan, indartzen ari zen garai hartan...

Garai horretan, bada, 22 urte zituela, hasi zuen bere ibilbide luzea helburu bakar batekin: frankismoa suntsitu. Orduan alistatu zen, bere koadrilako hainbat lagunekin batera, Loiolako Santutegian antolatutako kuartelean, eta handik aurrera ibilbide luzean abiatu. Gerra garaian alde batetik bestera: Loiolatik Saturraraneraino, Kantabria aldera eta espexera: El Duesora eta, geroago, Cadizeko Puerto de Santa Mariako espexera. Eta aurrerago, gerra amaitu ondoren, etxe-

ra itzuli, eta handik gutxira abertzaletasuna eta militantziari kasu eginenez, Bidasoako muga zeharkatu eta Iparraldeko ibilera: Hendaia, Baiona, Paris, Bordele eta Baigorri. Beti, frankismoarekin akabatzeke helburu jakinari jarraituz.

Joan-etorriak, atsedean gutxiko ibilerak, horietan balentria, erantzunkizuna, zintzotasuna, laguntasuna, irmotasuna, gozotasuna, adeitasuna izan dira Isasmendik erakusitako baloreak. Abertzaletasuna eta militantzia, alaitasuna eta tristurarekin batera:

Negarra eta samina utzi genuen herritik irteterakoan familia erdia gelditzen zen atzean, emakume asko eta egunak pasatzen genuen pentsatuz haiei zein zigorra espero zitekeen .../... Gure ibilerak hamaitzkatxo disgustu eta negar ekarri zuren gure etxeetara, baina orain badakit gurasoek eta anai-arrebek barkatu zizkigutela, gure ahalegin guztiak ez ziren eta guk disfrutatu eta ondo bizitzeko, gure herriaren onerako baizik.

Zailtasunak gainditzen joandako ibileran ezin ukatu adiskidetasunari eskainitakoa, adiskideen lekuan jarri eta haien ezbeharreatik ere saminduz. Herriko lagunak elkarrekin helburu bateratu bat, nahiz politikoki pentsamendu bateraturik ez izan. Elkarrekin une zailetan, baita proiektu eta ekintzetan.

Adiskidetasuna, bizitza osoan, Azkoitian eta, geroago Iparraldean ere; horrela aipatzen du Txanton lagunaren berriak pasadizo askotan.

Baina ilusioa eta pozaren ondoren, kokatzen du Isasmendik desilusioa eta desengainua ere. Zehaztasunez kontaktzen du demokratizat hartutako erantzun eza eta interesen arabera funtzionatzeko modua, leialtasun falta. Desilusioa alderdiko goi mailako hainbat nagusien jokabideekin ere. Minduta sentitzen da, baina ez horregatik isilik. Isasmendik bere oroimen liburuan joera kritikoa agertzen du behin eta berriro. Militantziaren deiarri erantzun, baina alderdi kritikoa landu. Horrela agertu zuen bere iritzia, bere ustez, ekintza desegoki baten aurrean, edo nagusien agindu baten aurrean. Zehaztasunez kontaktzen du Eusko Gaztedia antolaketaren inguruan aginduaren aurkako iritzia, nagusiekin konpon eza. Horrela 1948an Euskadiko Gaztediaren antolaketa bertan behera utzirik, etorri ziren, maila batean, garai lasaiagoak Txanton eta Iñakirentzat. Handik aurrera Hendaian finkatu ziren eta abarketak josteko lanari heldu zioten. Hala xe kontaktzen du:

Lasai aldia zen guretzat, inguruetan ez zen gora behar handirik. Baina Hegoaldean gazteak Francoren kontra mugitzen hasi zirenean, Iparralderako bidea hartu be-

har izan zuten gazte haietako askok, urte batzuk lehenago guk egin genuen bezalaxe. Gu urteetan aurrera gindoazen eta ez genituen gazte haiek ezagutzen, baina bai askoren gurasoak, eta nola haien borroka guk egin genuena berbera zen, gogo onez hasi ginen beraien laguntzen.

Eta horrela heldu gara gaur arte.

Eta horrela kontaktzen du etenik gabe, modu argi eta dokumentatu batean. Euskara batuan idatzitako liburua errez irakurtzekoa da, argia ulermenari dagokionez. Horrek, agian, kontakizunari freskotasuna kendu diezaioke, beti baita atsegin tokian tokiko euskalkia erabiltzea. Hala ere, nahiko bizia da narrazioa, zehaztasun ugariz osatua, berdin berak bizitako pasarteak kontatzera-koan edo beste batzuen testigantza


helarazterakoan. Hitzez gain, argazki bilduma aurkitzen da liburu-ko orrietan: abertzale lagun talde-koak eta epe desberdinetan izanda-ko egoitzetakoak. Eta denboran aurrera eginez, heldutasunean egin-dakoak ere; Txanton eta Iñaki be-tiko lagunak.

Bizitza osoan aberriaren alde jo-katzea izan zen Iñakik eta bere la-gunek egindako apustua. Zalantza-rik gabe, apustu gogorra jaioterri-tik urrun egotea, noiz itzuli zain egonik. Hori da, hain zuzen ere, li-buruaren amaierako gogoeta, beti lagunak buruan izanik, beti oroi-tzapena bizirik mantenduz.

Nire denboraldiko ibilerak libu-rua interesgarria suertatzen da oroi-tzapena gogora ekartzeko eta be-launaldi berrien ezjakintasuna ase-

tzeko. Atsegina, musika polit eta hunkigarri batez lagundurik; lagun-garria izan da niretzat Joseba Ta-piaren Agur Intxorta Maite, 1936/37 gudako kanta bilduma.

Irrintzi bat entzun da...



Ana Gelbentzu

IHES-BETEA

Angel Lertxundi • Alberdania 2006


Werner Lindemann zaharrak gaztaroko oroitzapenak pape-
reratzeko tenorea heldu dela era-
baki du; Anjel Lertxundiren mai-
sulan honek, gaztaro gorabeherat-
su eta gertakariz betea izan duen
agurearen kontakizuna biltzen du
hiruehun eta berrogeita hamar pa-
sa orriko lan itzelean. Alemania hi-
tlerzalean kokatzen da narrazioa,

eta Werner Lindemann nerabeak,
Hitlerren jarraitzaile sutsu eta po-
rrokatuak, bera berez judutarra de-
la jakingo du egun batetik bestera,
hainbeste gorrotatu eta hamaika al-
diz mesprezatu dituen horietako bat
dela, alegia.

Ez da erraza gutako edonork ur-
te luzetan izan dugun identitatea
zalantzan jarriz gero nola erreak-
zionatuko genukeen jakitea. Hots,

gauetik goizera, tupustean, orain
arteko identitatea gure benetako
identitatea ez dela jakingo bagenu.
Kontakizunaren arabera, Werner
Lindemann nerabeak oso argi da-
kusa horrelako une batean egin be-
harrekoa: ihes egitea. Edonora, bai-
na ihes.

Ihes egite hori, gainera, ez da no-
belan kontaktzen den ihes egite fisi-
kora soilik mugatzen; nobelako pro-



tagonistak, judutarra dela jakin aurretiko bere izaera, jarrera, eta mundu ikuskeratik ihes egin beharko du derrigorrean, eta, poliki poliki, gertakari ezberdinen jazotzeak beste pertsona bat bilakatuko du ezinbestean, lehenagoko Wernerrek zituen sentipenekin alderatuz erabat kontrajarriak diren sentipenak dituen pertsona. Izan ere, Alemania nazia gorenean zegoen une historiko konkretu horretan, munduaren salbatzaile izatera deituriko nerabe hitlerzalea izatetik, orduko gizarte alemaniarrean gorrotatuetan gorrotatuen ziren judutarretako bat izatera igarotzea, ez da edozein gizasemek modu erabat naturalean bereganatu dezakeen aldaketa. Funt-

sean, bere buruaren benetako aurkikuntza burutu beharko du Wernerrek judutarra dela jakiten duen unetik aurrera. Benetako Werner Lindemannen aurkikuntza.

Irakurleari hasera haseratik bertatik ematen zaio Wernerren judutartasuna ezagutzera; nobelaren hiru ataletatik lehenengoa, Wernerrek bere judutartasunaren berri izan arteko gorabeherak kontatzen dituen, protagonistak bere jatorriaren berri izaten duen unera arte luzatzen den kontakizun landu eta erritmikoa da. Atal honetan, idazleak bere luma zorrotzaz zirriborrotzen dituen pasarteek, artega jartzeraino kiribiltzen dute irakurlea behin eta berriz lerroek aurrera egin ahala. Izan ere, Werner ezjakintasunaren putzuan igerian ari den bitartean, irakurleak presente du uneoro ezagun duen protagonistaren jatorri judutarra. Honek, zalantzarik gabe, beste dimentsio bat ematen dio lehenengo atalari. Bestalde, nabarmentzeko modukoa da Anjel Lertxundik zeinen maisu-

ki birsortzen duen garai hartako Alemania nazia.

Bigarren eta hirugarren atalek, berriz, Wernerren ihesaren inguruko kontakizuna jasotzen dute euren luze-zabalean Alemaniatik Italiara eta Frantziara ondoren). Lehen irakurketa batean, irakurleak bigarren eta hirugarren atalak lehena bezain borobilak ez direneko sentipena izan dezake. Argia aldizkariko kazetari Mikel Asurmendik, irakurlearen pertzepzio hau planteatu zion Anjel Lertxundi idazleari berari, aipatu aldizkariko 2077. aleak jasotzen duen elkarrizketa interesgarrian. Anjel Lertxundiren erantzuna ere kontuan hartzeko modukoa da:

“Lehendabiziko partea irakurleak ondo ezagutzen duena- idatzi egin behar nuen gero beste biak garatuko banituen. Baina niri interesatzen zitzaizkidanak, beste biak dira, ezezagunak eta misteriotsuak niretzat, intuitzen nituenak baina baina existitzen ez zirenak. Esan nahi dut: lehendabiziko parte hori ezagutzen nuen nik nobela idazten hasi aurretik ere. Irakurleak ere bai, neurri batean. Beste biak, ez zituen inork ezagutzen, ezta neuk ere, idatzi ditudan arte. Hori da, nik dakidala, literatura. Erants dezadan: lehendabiziko partean, ezagutzen dudanaren birkreazio bat dago. Beste bietan, kreaioa.”

Argi dagoena da, zintzurretik heldu eta harrapatu egiten duela no-

belak irakurlea; batetik, lehen ataleko Alemania naziaren argazki izu-

garriarekin, eta bestetik, neurri batean barne bidaia ere baden bidaia

edo ihes kitzikigarriarekin.

Gorka Azkarate

PANOPTIKOA

Jeremy Bentham · Jakin irakurgaiak, 2002

Behin entzun nuen hitza

Toni Negri filosofo italiarrari entzun nion kasualitate batez eta lehenengo aldiz panoptiko hitza, ordutik buruan iltzatuta gelditu zait. Dagoeneko ahantzia nuen zertaz ari zen Toni Negri panoptikoa aipatzean, baina egun hartan nire ingurukoei galdetu nien, badakizue zer den panoptikoa? Pan-optikoa... ikusmenarekin zerikusia duen zerbait, beharbada? Bazirudien niretzako zein nire ingurukoentzako ezezaguna zela hain bitxia egin zitzaidan hitza. Panoptikoari buruz zertxobait jakin nahian hasi nintzen orduan.

Bentham anaiak izan ziren panoptikoaren garapen eta zabaltzearen arduradunak. Panoptikoa eraikuntza zirkular bat da non puntu bakar batetik beste puntu guztiak kontrolatzen diren. Samuel Benthamek diseinatu zuen kartzela izango zen eraikin panoptikoa. Eraikina erdian zainketa lanetarako dorre bat izango du. Dorre honetatik, eraikineko gela guztiak ikus daitezke, honela pertsona kopuru murriztuz batek, talde handi bat kontro-

la dezakeelarik. Panoptikoaren forma arkitektonikoak eragin zuzena izango du honen funtzionamenduan. Samuelen anaia Jeremy Bentham filosofo eta jurista ingelesa izango da panoptikoaren teoria landu eta zabaltzen saiatuko dena. Sistema hau, nahiz eta hasiera batean kartzela baten sorkuntzarako izan, dagozkion berezitasunak aplikatu ez gero, beste instituzio mota batzuetara ere egokitu daiteke. Panoptiko sistemaren bidez, garai hartako espetxeen egoera kaxkarra hobetu nahi zuen Jeremy Benthamek. Panoptikoak berrikuntza ugari ekarriko zituen. Horregatik, eraikuntza hau egiteko zehaztasunak ez ezik, honen funtzionamendua ere azaltzen du Bentham jaunak: garbitasuna segurtatzeko hartu beharreko neurriak edo presoen elikagaia eta jantzi beharreko arropen berezitasunak adibidez. Laburbilduta, Benthamen ustez, espetxe batek bertan kartzelaratuta dauden gizabanakoa zuzentzeko ezinbesteko baldintzak betetzen ditu panoptikoak.

Beraz, leku jakin batetik pertsona batek beste gizaki batzuk kontrola ditzake. Denek dakite zelata-

tuak direla baina era berean ezin dute zelataria ikusi. Azken honek, askatasun osoa du bere tokitik mugitzeko inor ohartu gabe. Baliteke orduan, gaur egungo zaintze kame- rek edozein leku, panoptiko bilakatzea. Hori horrela, existitzen dira denda panoptikoak: jabeak mostroretik mugitu gabe kontrola dezake dendako zein bazterretan zauden, ze objektu begiratzen duzun edo behatza belarrira sartzen duzun. Izan daiteke aparkaleku panoptikoa, etxe panoptikoa eta zergatik ez, agian jada mundu panoptiko batean bizi gara. Interneteko *google earth* aplikazioa erabiltzen badugu adibidez, edonork, pertsona bakar batek, bere ordenagailuko pantailatik, munduko edozein txoko ikuska dezake inork bera ikusi gabe. Badirudi Benthamek ez zuela uste bezalako arrakasta izan bere panoptikorekin. Bada, helburu zuzenak izanda ere, niri behintzat zirrara beldurgarri bat sortzen dit panoptikoak izan dezakeen bilakaerak.

Miren Juaristi

MARIASUN LANDA

Mariasun Landa, Errenterian jaio zen 1949an eta bere filosofia ikasketak Parisen egin zituen. Gaur egun Donostian bizi da eta bertan egiten du lan, Donostiako Irakasleen Eskolan (UPV-EHU).

Euskal Herria da, gehienetan, ipuinetan erabiltzen duen eszenatokia, baina bere istorioak unibertsalak dira; izan ere, barne munduko sentimenduak dira ardatz istorioetan eta, kasuan kasu, ondo aukeratutako animaliez baliatzen da (arkakuso, elefante, katu, krokodilo...) sentimenduok irudikatzeko; horren eredu dira “Irma” edo “Elefante txori bihotz”, beste hainbaten artean.

Behin, bere liburu bate aurkezpenean (*Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean* 1997), Mariasuni galdetu zioten zer zen berezkat ipuin on bat, eta horrela erantzun zuen:

“Nirezkat ipuin on bat piezaz pieza eraikitzen den puzzlea bezalakoa da, arnasarik hartzeko paradarik gabe irakurtzeko pentsatu dena, gora beherarik gabeko erritmoa duena, hitz bat bera ere soberan ez daukana eta esaten dutena baino askoz ere ge-



hiago iradokitzen duten hitz asko dituena.”

Esan behar da, lortzen duela Landak bere obretan islatzea, berak beste batzuen lanetan bilatzen duena.

Haur eta gazte literaturan egin dako lanarengatik da ezaguna gehienbat; nahiz eta bere obrek badakiten helduok erakartzen.

1982an Lizardi saria irabazi zuen *Txan Fantasma* ipuinare-

kin; eta 1991an, berriz, Euskadi saria, *Alex* ipuinarekin. Hogeita bost bat liburu argitaratuak ditu, eta horietako asko itzulita dago ingelesera, alemaniera, frantsesera eta beste hainbat hizkuntzatar. Bereak dira, besteak beste: *Nire eskua zurean* (1995), *Galzterdi suizida* (2001) edo *Krokodiloa ohe azpian* (2002).

Karmele Igartua

GALTZERDI SUIZIDA

Mariasun Landa · Elkarlanean, 2001


Augusto, un vello carpín que leva unha vida tranquila nun dos pés do carteiro Plinio, guíndase á rúa dende un cuarto piso para ver o mundo. E malia que toma esa decisión de converterse nun carpín suicida, cando lle saíu o primeiro burato na punta e logo de reflexionar fondamente, non sabe, en realidade, que a aventura de sobrevivir resulta difícil e perigosa. Mais é un carpín con sorte, e no camiño aprenderá, e descubrirá as cousas boas que a vida pode ofrecer.

Edo,

Un vell mitjó que viu tranquil·lament en un dels peus del carter Plini, es llança al buit per veure món. I tot i que pren aquesta decisió després d'haver-ho reflexionat profundament, el cert és que no sap que l'aventura de sobreviure resulta difícil i força perillosa. Tanmateix, és un mitjó amb sort, i en el seu camí trobarà algú que li oferirà un món millor.

Edo, bi hitzetan: Galtzerdi suizida.

“Orain dela aste batzuk gertatu zen: laugarren solairutik bota nuen neure burua.” Hasierako esaldi indartsu horrekin hasten da liburua. Harrigarria, ezta? “Eta harrezkero gertatu zaizkidanak kontatu nahi nituzke hemen, niri bederen, sinestezinak eta harrigarriak iruditzen baitzaizkit”. Laugarren solairutik bota egin baino lehen, Plinio mutilzaharrarekin eta anaiarekin bizi zen, ingelesa ikasi zuen... Laugarren solairutik bota egin ondoren, beste bizitza bati ekinen dio galtzerdiak. Bizitza horretan abentura ugari biziko ditu: arratoi ingeles bat ezagutuko du, Klotildearen eskuan jarriko da eta antzerkigintza ezagutuko du, gazte batzuek bahitu eta gladiadore lanetan jarduten behartuko dute, maisu



gazte batek salbatuko du eta horri esker, ezer gutxi bada ere, Ezer gutxi galtzerdi dama ezagutuko du, maitasuna ezagutuko du.

Idazleak giza sentimenduak dituen galtzerdi baten larruan sartzeko duen gaitasuna era-

kusten digu: “Ari naiz pixkanaka mundua ezagutzen”, “Plinioren oinetik ikusia nuen guztia mahaiaren bi hanka eta beste zapata eta galtzerdi batzuk ziren, zurezko zorua eta inoiz zangoren bat. Horretara mugatzen zen nire esperientzia...”

Baita barazkiei, hots, alkatxofei bizitza propioa emateko ere “Erreparatu al diezu alkatxofei? Oso hosto gogorak dituzte kanpoaldean, eta haiek kendu beharra dago muinera iristeko, baina muina bizkotxo bezain biguna da. Halaxe jokatu behar dugu guk ere, zer gertatzen zaigun edo zer sentitzen dugunean: hitz gogor, itsusi, alferrekoz egindako hostoak kendu behar dira, bihotzera iritsi arte.”

Bai, Mariasun Landaren liburuez ari gara, *Galtzerdi suizida* liburuez.

Mirentxu Oteiza

KROKODILOA OHE AZPIAN

Mariasun Landa · Alberdania, Ostiral saila, 2002

Barne sentimenduen mundura eramán gaitu Landak, berriz, *Iholdi* edo *Elefante txori bihotz* edo *Alexen* egiten duen bezala; oraingoan J.J.ren eskutik. Egunerokotasunetik abiatuta edonoren barruan gertatzen diren bizipenak erakutsi dizkigu. Fikzioari ere egin dio leku, krokodilo bat ekarri digunean ohe azpira, eta gertaera hori ederki uztartu du errealitatearekin, horrela sinesgarritasuna bermatuz kontatu digun istorioan.

Gaiak berak, irakurketa atsegina egiten badu liburua, laburragatik ere, ba da xamur irakurtzen dena; eta hori gutxi balitz, tarteka sartzén dituen elkarrizketa motzek bizitu egiten dute, asko, sakona den gaia aurkezteko forma.

“- Bai, esan?”

- Jolas parkea?

- Bai... - zoologikoa duzue, ez da?

- Bueno... animaliaaren bat badago

- Krokodilorik falta duzue?

- Nola diozu?...” (12.or.)

Gainera, esaldi motzez baliatzen da eta lexiko ezaguna erabiltzen du idazleak, eta horrek irakurlearen-

ganako hurbilketa erraztu egiten du.

“...-Juanjo, Juanjotxo, lan gehiegi egiten duk hik! Eta gainera ez zegok beti bakarrik bizi izaterik! Hik dibertsio pixka bat behar duk!...” (19.or.)

Krokodiloa ohe azpian Haur eta Gazte Literatur saileko ipuin, narrazio edo eleberri laburren arteko sail batean argitaratu zen, baina Sailkapen horiek gainditzeko moduko irakurketarako bidea urratzen ditu M. Asun Landak liburu honetan ere: irakurri nahi duen edonor (haur, gazte nahiz heldu), izan daiteke hartzaile.


Gaiari erreparatuz, J.J. pertsona arrunta da, egunero lan egiten duena. Batzuetan aspertzen da eta badu bete gabeko hustasun bat, gutariko askok bezala. Egun batean, izutu duten sentimenduekin egin du topo; krokodilo itxuran agertu zaion izua. “...jadanik ez zuen beldurrik. Itolarria besterik ez izerdi hotza... Krokodiloarena bere sekretu handia izango zen, eta hartan pentsatutakoan konturatu zen


hartaz inorekin hitz egin ezina beldurra bera baino gogorragoa zela.” (19.or.)

Protagonistari gertatzen zaionaren ikertze bidea, berarekin batera jorrazteko gonbitea luzatzen zaigu liburuan. Juan Josek angustia edo beldurra eta batez ere bakardadea sentitzen du. Eta zer sentitzen duen identifikatzen duenean hasiko da bere sendatze bidea; orduan, eta laguna hurbildu eta eskua eskaini diotenean.

“...J.J. ohartu zen, lehen aldiz, norbaitekin zerbaiti begira egotea mundu honetako gauzarik politenetarikoa dela...” (57.or.)

Funtsean, J.J. pertsona heldua da, eta Mariasun Landa helduon izuaz ere ari da. Izan ere sentimenduak haur nahiz helduengan bizi dira. Sentitzeko moduak aldatzen dira norbanakoaren bizipenen arabera. Eta, umetan, erraz kanporatzen ditugun beldur, poz edo maitetasunak, denbora aurrera joan ahala, arrazionalizatzeko joera izaten dugu; gure jokaera, sentimenduek eragiten digutena geure baitan gordetzeko izaten da, batez ere ezkorra





denean sentitzen duguna; erakusten ez dena existituko ez balitz bezala!- baina, barru-barruan lekutxo bat egiten dute kanporatzen ez ditugun horiek, isil-isilik, askotan geroz eta toki handiagoa hurrupatuz gure izateari, eta, hasieran beldurra zena, izu bihurtzen da; eta min txikia, gorroto; eta bakartasun sentsazioa, bakardade; eta lotsa, ezintasun. Horiek horrela, adinarekin batera zahartzen garen neurrian, areagotzen dira, gutxitik askora, adierazten ez diren barrukotasunak. J.J. horren ispilu da, eta irakurleak badaki hori igartzen; igartzen eta identifikatzen, eta konparatzen, eta dagokion neurrian hausnartzen.

Nabarmendu beharreko egiten zait Mariasun Landak J.J.ren urradurak sendatzeko bilatu duen bidea: haurrei bezala helduoi lagunaren eskua onartzen asmatzearena, edo lagunari eskua luzatzearena ere, lagunarekin batera bizitza dastatzearena eta orobat, helduoi erakustea, ume bagina bezala, gure sentimenduak irakurtzen.

Karmele Igartua

UNED-BERGARA

Matrikula zaitez!

Ezin baduzu egunero joan klaseetara,



eta garai batean utzitako ikasketei heldu nahi badiezu,



karrera berri bat hasteko gogoia baduzu,



hizkuntzak ikasi... edo zure prestakuntza osatu

HAU DA BEHAR DUZUN UNIBERTSITATEA!

URRUTIKO UNIBERTSITATEAK ESKAINTZEN DIZUNA

- ┆ 20 KARRERA UNIBERTSITARIO BAINO GEHIAGO
- ┆ IKASKETA-PLAN BERRIETARA SARTZEKO AUKERA
- ┆ DOKTORETZA IKASTAROAK, GRADUONDOKOAK, MASTERRAK...
- ┆ ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZA
- ┆ TUTORETZA TELEMATIKOAK ETA JARRAIPEN PRESENTZIALA
- ┆ IKASTARO BIRTUALAK
- ┆ HIZKUNTZEN URRUTIKO IRAKASKUNTZA
- ┆ UDAKO IKASTAROAK
- ┆ JARDUERA KULTURALAK
- ┆ UNIBERTSITATERA SARTZEKO IKASTAROA




UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA
CENTRO ASOCIADO UNED-BERGARA

San Martín Enparantza z/g
Plaza San Martín s/n
20570 Bergara
Tlf: 943 769 033
info@bergara.uned.es
www.uned.es/ca-bergara

ELEFANTE TXORI BIHOTZA

Mariasun Landa · Anaya-Haritza 2001

Maistra batek iragar-ki bat irakurtzen du egunkarian: elefante talde bat irakasle bila dabilela. Lana eskatzeko erabakia hartzen du, oihanera joan beharko du ordea, dieta begetarianoa eskaintzen diote eta soldata moduan ehun tona banana. Oihanean, ohar-tuko da elefante guztiak ez direla berdinak: nolako bihotza, halako elefantea dagoela.

Ugaztun ahaltsuak dira elefanteak, tradizio handikoak imajinari kolektiboan eta bereziki haurrengan. Itxura serio eta pentsatu baten azpian, ezkutatzen dira bere tamaina, letagin eta tronpatatik; arintasun hori ematen baitie, jolasti itxura eta funtzionaltasuna dute beren liluragarria. Era berean, oso adimen, oroimen eta ahalmen handiak egozten zaizkie, guretzat nahi genituzkeenak.

Ipuin honen kasua horrelaxe definitu du Mariasunek berak: bihotz txoro, fantasiatsu, arin samarreko elefante bat, bihotz ezezagun eta itxura serio eta pentsatiaren azpian ezkutaturik ageri

dena. Auto-pertzepzioa, finean.

Idazlearen literatur ibilbidean ba omen delako momentu bat, non idazleak bere literatur zereginari buruzko hausnarketa egiteko premia nahitaezkoa sentitzen duen. Nola egiten duen bere lana, zergatik idazten duen hori, bere lanen genesi eta ernatzea, bere obsesioak, bere gai erreperiariak... euren burua ulertzea eta aldi berean, besteak eta inguratzen dituen mundua ulertzea.

Landaren kasuan, autokontsolatzeko beharrak sarritan eraman omen du argitaratu duen haur literatura idaztera. Distraitzeko, jostatzeko... ere izan ohi da. "Exortzizatze modua aipatzen du, larritzen duenari forma eman edo kezkatzen duenetik ihes egiteko modu bat. Heldutasunera iritsi izanaz kontsolatzeko modu bat dela esan liteke beraz. Guztiok barruan daramagun haurra aipatzea, topikoa suerta daiteke, baina finean, errealitatea da. Erreprimituagoa batzuetan, puztua besteetan, haurra, izan bada eta kontu egin behar zaio.

Haur emozioak ahalik eta modu estilizatuenean islatzeko saio bat da, xumetasun linguistikoa-rekin haurtzaroko sentimendu eta bizipen konplexutasunaren zerbitzura egina, ezagutzen dituzten neska eta mutilen eskura jarria; eurak izan ziren eta oraindik sentitzen diren haurrena, agian. Eta haur literatura oso sinplea delako, gaitasun literario handirik gabeko irakurleei zuzendua dagoenez, aski dute kapazitate linguistikoa-rekin. Genero honek asko lagundu du idazle gipuzkoarra bere buruaz barre egin ahal izateko, umorea, maitasuna bezala, bizirauteko behar-beharrezkoa baita.

Era berean, oso kontuan hartu behar da animaliek haurrengan duten eragina, oso gertuko sentitzen dituzte, ulerkorrak eta atseginak aldi berean, bat datoz euren eta identifikatuak sentitzen dira. Idazlearentzat animalia horiei mozarroa kentzean, maskarra lapurtzean dago gakoa, beren barne-fauna askatzean. Zer ezkutatzen duten begiratu, zergatik eta nola aukeratu ohi dituen norbe-

rak animalia jakin batzuk eta ageri den euren iluntasuna atzetik argitzea.

Ondorioz, istorioak sortu eta ho-

riek kontatzeko beharra, iluntasunetik sortu ohi dira, ez beti, baina bai sarritan. Argitara ekarri behar dira, espazio ezezagun batetik, eza gutzen ez den, baina bizi gaituen

mundutik. Sortzea, babesa delako; bizirauteko baliabide ahaltua.

Doltza Barandiaran

TXAN FANTASMA

Mariasun Landa · Erein, 1995

Umetan guztiok bizitu dugu mamuekin istorioren bat. Mariasun Landak, bistan denez, beti izan du oso azalean bere barruko neskatoa. Eta honen eskutik gainontzeko umeengana heldu nahi izan du istorio honekin. Kontakizun desberdina da *Txan fantasma* kontatzen zaiguna. Haurrentzat idatzitako ipuina, baina hauen eza-gutzatik eta errespetutik. Ez da ohiko ipuina; gehiegi samurtuta eta mezu jakin batekin. Ipuin garbia da, umerik ez da engainatzen, ez dago xantaiarik, garbi hitz egiten zaio.

Hasieratik harrapatzen du umea ipuinak:

“Ni Txan fantasma naiz. Farola honen gainean ikusten banauzue ez zaitetzte harritu, ez zaitetzte beldur-tu.”

Mamu bitxi bat eta Karmentxu neskatoa ditugu protagonistak. Hasieratik aurkezten zaigu egoera, baina ipuinean aurrera egin ahala ulertzen dugu nondik nora heldu garen egoera horretara. Mamuak erakargarria

egiten du ipuina eta Karmentxu, berriaz, guztiok maite dugu hasiera hasieratik. Guztiok sentitzen gara Karmentxu. Umeen unibertsoko elementuak ditugu bazter guztietan: jostailuak direla, bere irudimena dela, bere alaitasuna... Geure burua ikusten dugu haren lekuan. Karmentxu ulertzen ez dutenekin haserretu egingo gara; Zer diote baina? Egia da eta guztiok dugula inguruan mamu bat!

Ez du inork ulertzen, ordea, Karmentxu; gainontzekoentzat ikusezina den Txan fantasmak bakarrik. On do moldatzen dira elkarrekin. Karmentxuk bizipoza du Txan fantasmaren ondoan. Jostatu egiten dira, solasean aritzen. Karmentxuk etengabe hitz egiten du Txan fantasmarekin, lagun mina du. Etxekoek, ordea, ez dute ikusten mamua, ez dute ulertzen Karmentxuk benetan ez den batekin hitz egitea. Uste dute neskatoa burutik ez dagoela ondo. Eta Arraroen etxera eramango dute azkenik.

“Arraroen etxea. Karmentxu nes-



ka arraroa al zen ba? Eta zer? Zer kalte egiten zuen? Zer egingo ote zioten hor barruan? Bitartean, etengabe bere istorioa kontatuko dut, norbait gelditu eta ni ikusi eta entzun ondoren, betirako Karmentxu itzul diezadaten.”

Arraroen etxea, Zoroetxeari deitzeko modu ulergarria eta samurra da; ez dago zehaztasun gehiago eman beharrik. Ipuinak ez du umeen ipuinek izan ohi duten amaiera zoriont-

sua, baina mezua baikorra da. Adiskide leiala, Karmentxu Arraroen etxetik noiz irtengo zain dago. Ir-tengo baita. Seguru.

Hizkuntza soila eta zuzena erabiltzen du Mariasun Landak *Txan fantasma*. Fantasma hitza bera hautatu du, ez dio mamua, fantasma zehatzagoa da, hau irakurri eta

burura datorkigun irudia azkarra-
goa eta argiagoa da. Hala ere, eza-
gun du 1995ean idatzita dagoela.
Hizkuntza zuzena bada ere, esal-
diak zenbaitetan antzekoak dira.
Aldea dago Txan fantasmako hiz-
kuntza eta Mariasun Landaren az-
ken ipuinetakoen artean. Ordu-
tik hona bere idazkera oraindik ere ze-

hatzagoa eta hautatuagoa bilakatu
baita.

Txan fantasma arrakasta handia
izan du, Euskal Herritik kanpo ere.
Umeentzat gomendagarria inondik
ere. Baita gurasoentzat ere.

Itziar Gomez

IA HAMAR URTEKO ARNASALDI SAKONA

HATSAREN POESIA • Hatsa Elkarte

Poesia bizi-bizirik dago.
Horren froga garbi bat da
heldu den urteko apiril-
aren lehen igandean hamar urte be-
teko dituela urtero hutsik egin ga-
be argitaratu den olerki-liburua...
baina ez edozein olerki-liburu ge-
ro, e!

Izan ere, hasieratik argi zuen Aux-
tin Zamorak, Senpereko Hatsa el-
karteko arduradunak, ez zuela in-
ongo olerkaririk baztertuko eta be-
rak jasotako olerki guztiekin oler-
ki-liburua osatuko zuela.

Estrainekez, 1999an hogeita ha-
marren bat olerkariren olerkiak ja-
so zituen eta liburua aurkezteko

bazkari bat antolatu zuen Oxtike-
nia elkarteak.

Geroztik, beste zortzi olerki-li-
buru atera ditu elkarteak eta urte-
tik urtera Senperera olerkiak bi-
daltzen dituen olerkariaren kopurua
haziz joan da, eta olerki-liburutxo
izatetik liburukote mardul izatera
pasa. Urtero antolatzen da bazka-
ri poetikoa liburua aurkezteko eta
bazkari horrek olerkariok elkar eza-
gutzeko aukera eman digu, Euskal
Herri osoko poetak elkarren berri
izan dezagun.

Era berean, liburua ez duzu ohi-
ko liburudendatan aurkituko, ira-
kurle! Hatsaren Poesia olerki-libu-

ria sustatzen duen Hatsa elkarte-
ak ez baitu etekin ekonomikoa hel-
buru; poesia mundu guztiarenga-
na zabaltzeko asmoa bai, ordea, eta
horretarako poesiara hurbildu na-
hi duen orok du aukera Senpereko
Oxtikenian sartu eta ale bat edo
beste eskuratzeko.

Beraz, hatsaren poesia eskuetan
laztanduz gero, irakurlea ohartuko
da barneko orrialdeak pasatuz ba-
tera, era eta gustu guztietarako po-
emak irakurri ahal dituela bertan,
eta agian, agian bakarrik, irakurlea
ere animatuko da bere barne-bar-
neko orrialdeak besteei adierazte-
ra.

Ainara Maia

LAURAK KAFE BAT HARTZERA GONBIDATU NINDUENEKOA


ECCE HOMO • Laura Mintegi • Txalaparta 2006

*Kafe bero-bero bat nahi?
Zergatik ez?*

Hona hemen gizakia: pentsamenduak eta politika. Politikaren pentsamendua ekintzen bidez islatzen duen bezala norbanakoak, Laura Mintegi gizakia den bezala azaltzen du iragana. Berak bizitutakoa, edota berak bizi izan balu bezala (nahiz eta ez bizi) transmititu du liburuaren bidez. Sinesgarri egin du, idazleak berak hala dela sinisten duelako.

Hona hemen gizakia: politika ikusteko bi modu azaltzen ditu idazleak pertsonaien bidez eta elkarrizketarik gabeko pentsamenduekin hasten da liburua. Politika ikusteko bi modu (maskulinoa eta femeninoa) dauden bezala, maitasuna ikusteko bi modu islatzen dira emakume baten eta gizonetzko baten pentsamenduen bidez.

Kafe bat hartzearen aitzakiarekin bi pertsona bildu dira eta begiradei solasten utzi diote, airean pentsamenduak biraka ari diren bitartean. Galdera batek eragiten dio pentsamenduen maratilar hasieran eta liburuaren amaiera arte denbora du ira-



kurleak erantzuna asmatzeko edo bilatzeko... aurkituko al du? Nik bederen neure erantzuna dut, baina neuretzako gordetzen dut altxorra.

Maite dut imajinatzea nolako bizitza genukeen betiko elkarturik... eta bat-batean iragana dator orainaldiko kafearen ke artera.

Horra hor emakumea: Bego. Eta kafeak ez du jada orainaldian ke-

rik ateratzen. Emakumearen pentsamendua iraganean dago izozturik.

Eta horra hor gizona: Jose. Eta kafeari putz egiten du iragana piztu nahian, baina iragana kafe hotz bat bezalakoa da, mikatza; eta garrazki oroitarazten dio emakumeari behin izandako hori orainean ez dela existitzen. Garai batean desio zuena, jadanik ez duela nahi, eta emakumeari zaila egiten zaio gizonari hori azaltzen.

- Kafe bat, mesedez...

- Bai, baina...

- Baina zer?

- Baina ez! Pattar pixka batekin sinpleago ikusiko dut neure burua eta bizitza gizonen ikusten duten antzera ikusiko dut.

Horra hor nire erantzuna: bizitzaren aurreko ikuspegia aldatzen da eta gizakia, berdina izan arren, ez da sekula bera.

Ainara Maia



Luma berriak:

Verne, Kafka, Woolf eta Joyce... eta Munarriz, Igartua, Deskarga eta Gomez...

Zein ederra den itsasoratzeraz doazen errekatxoetatik zurrupadaxoa hartu ahal izatea, lehenengoan itsasoari euren urak gehitzera agertzen direnen freskotasunaz nire barrenak mugitzea...

Mila esker zuen iturrietatik probatzen uzteko aukera honexegatik.

Beti leial,

J. M. Aznar (Etxalar)

Aldizkaria:

Kaixo! Zorionak aldizkariagatik. Nik ere nahi nuen idazle izan. Baina erdaraz. Orain saiatzen naiz zuekin euskara ikasten. Gomen-dio bat bakarrik: aldizkariari formatua aldatzeko. Iruditzen du aldizkari bat elizakoa. Eskerrik asko!!

Mikel (Karrantza)

Zuzendari jauna:

Zure aldizkariako irakurlea nauz eta horoskopoz daukazuen ata-

lagatik kexatzeko idatzi nahi nuen. Pare bat urte badira zuen aldizkaria irakurtzen dudala eta gozogarri zaidala; baina azkeneko orrialdeetara heldu eta horoskopoa irakurtzean amorraturik bukatzen dut. Kasualitatea izango da baina urriaren 26an jaiotakoa naiz; Txintxeta alegia. Ba ez dakit zer astrologo izango duzuen, edo zer darabilzuen, Txintxeta garenoi beti atalla hutsik uzten baitiguzue. Zer da gertatzen dena? Espero dut azalpenen bat behintzat ematea. Hilzorian naizela ikasturte gehiagorik ez baitut pasa nahi.

Adeitasunez,

Conchi (Agoitz)

Perfumea:

Kaixo, Carmen Valoisen perfumerako errezeta adi-adi irakurrita oso ideia ona iruditu zitzaidan; baina galdera bat egin nahi nion Carmeni: loreez gain bestelakoekin ere egin ahal daiteke perfumea? Hara: gauza da nire bikoteari izugarri gustatzen zaiola txokolatea. Eta pentsatu dut akaso txokolatezko perfume bat egin nezakeela bera txoratzeko. Zer deritzozu? Froga egin aurretik zeuri galdetu nahi nizun...

Mila esker eta zorionak aldizkariarengatik!!

Arrate Jauregizuria (Zaragoza)

Karmeleren poema:

Karmele. Nahiko nuke ni izan zure poema inspiratu duena. Zure poemak Keniara zurekin bidaiatzeko gogoak sortu dizkit, bertako ilargi beteak zurekin aztertzeraz, Mozart entzuten dugun bitartean barraskiloak bila ditzagun.

Eta bien bitartean bai Kenian eta bai hemen ikusten den Ilargia berbera dela pentsatuz kontsolatuko naiz.

Laponiako ilargi beltza

Andoni Etxeberria





<http://ieskola.asmoz.org>